

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-12-23
ASTELEHENA
435. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Txistorra, sagardoa eta festa

Santamas eguna, dotore Arrasaten | 12



Txistorra taloa jaten. | IMANOL GALLEGO

Miguel Gonzalez Bastida gogoan, Bergarako Gabon kontzertuan | 29



Urteko eguraldia datutan, Pello Zabalaren eskutik | 5



Gipuzkoako Ziklo-kros Txapelketa ikuskizun bihurtu zen Oñatin | 22

Saria egokitu zaien sendi bateko hainbat kide, berria irensten.



Gabonetako Loteriak 2013a irauli du Arrasaten

Gabonetako Loteriaren sari nagusiak ia 180 milioi euro utzi ditu Arrasaten. "Oso banatuta" dago saria San Andresko auzotarren artean | 10

IRATI GOITIA

Abenduaren 27an urtekaria, urtarrilaren 10ean 2014ko lehen zenbakia, eta 13an lehen Astelehenekoa



Egubakoitzean Debagoiena 2013 urtekaria jasoko duzue etxean, eta hurrengo GOIENA urtarrilaren 10ean. Gabon zoriontsuak igaror!



ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORAPASAK 39

grupo amuebladora mondragonesa

Amuebladora Mondragonesak Gabon jai zoriontsuak opa dizkizue, aurten inoiz baino gehiago, eta urte berriak onena ekar diezazuela.

ARRASATE

943 71 10 11
943 71 10 12



centro hogar MUEBLES





Gorostiaren hostoak eta fruitua. | JULEN IRIONDO



Oñatiko Foruen Plaza, Gabonetako apaingarriekin atonduta; garai batean, zuhaitza jartze

Plazan izeirik ez, baina gorostiak berez daude apainduta

Nahiz eta izeiarekin lotzen ditugun gehiago, gorostia Gabonetako zuhaitza izan zen lehen Euskal Herrian

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Debagoieneko hainbat plazatatik desagertu da azken urteotan Gabon inguruko garaia girotzeko ohikoa zen arbola; izeia, tradizioz. Tradizioz, gure mugetatik haragoko lurraldeak aintzat hartzen baditugu, hori bai. Izan ere, gorostirako joera izan zen Euskal Herrian garai batean, nahiz eta hura galdu zen.

Zelten egutegiak izendatzen du izeia abenduaren 24ko arbola, urteko lehen eguneko. Urteko lehen eguneko, bai, ze egun horretan ekiten zioten zeltek urte berriari. Ilargi egutegia erabiltzen zuten, 28 eguneko hamahiru hila-bete zituena, eta zuhaitz izenez

izendatzen –garaian gauza bategatik edo beste bategatik nabarmentzen den zuhaitzaren izena du hilabete bakoitzak–, zuhaitza bizi ikurra da-eta zelten kulturaren. Eta baita euskaldunear ere; denbora neurtzeko modu hau hemen ere erabili zen. Gainera, zuhaitz baten babesean jaiotakoek haren ezaugarriak hartzen zituztela ere uste zen.

Hilabete bakoitzak du bere arbola izena, hasi urkitik eta intusara arte, elorria, haritza eta gorostia –bata bestearen atzetik doazena– pasata, besteak beste. Pello Zabalak zerbait badaki gai hauei buruz ere, eta hala azaltzen digu, adibidez, zelten kontakizun

batek dioena: "Zuhaitz guztiek borrokak egiten zituzten; eta borroka horietako batean haritzak irabazi egin zion gorostiari. Eta horregatik doa gorostia haritzaren ondoren egutegian. Baina goros-

DATUA

19

ARBOLA

Horiek erabiltzen ditu zelten egutegiak egunak eta hilabeteak izendatzeko.

tiari utzi zioten hostoa beti berde edukitzeko ahalmena". Eta baita nolabaiteko maila adieraziko lukeen fruitu gorria ere.

Haritza geratu zen, beraz, zuhaitz nagusi gisa –urtearen erdi erdian kokatuta, garrantzia handia zuen udako solstizioan–. Eta gorostia izan arren haren jarraian zetorrena, neguko solstizioari lotu zitzaion honen izena: "Iparraldeko herrialdeetan izeia izan da Gabon inguruko zuhaitz nagusia; baina hemen izeiak gutxi ziren, eta handi xamarrak ere bai erraz ibiltzeko. Eta Euskal Herrian gorostiarekin zegoen tradizioa, eta gorostia jartzen genuen; baina berehala iritsi zen debekua, ze gorostiak amaitzen ari ziren. Gogoratzen dut ikasle ginela nola ekarri zituzten hiru gorosti eder", diosku Pellok.

Gorostiarena atzera geratu eta izeiarekin egin zuen aurrera,

beraz. Urte berriko lehenengo eguna, esanda bezala, zelten egutegian izeiarena. Eguna, ze hamahiru hilabeteak zuhaitz izenez izendatzeaz gain, beste sei egun konkretuentzat ere bazuten arbola izen bat. Urteko lehen egunarekin batera azkenak ere bai, hagina, eta baita udaberriko eta udazkeneko ekinozioek, gisatsa eta lertxuna, eta neguko eta udako solstizioek ere, pagoa eta ezkia.

Kontu hauen gaineko argibideak Nafarroako Lizoainen argitaratutako egutegi zelta esku artean darabilela eman dizkigu Pello Zabalak. Egutegi horretan azaltzen dute, besteak beste, zelta eta euskal kulturen arteko lotura aspaldikoa dela, Irlandara heldu ziren lehenengo populatzaileak Iberiar penintsulako iparraldetik joanak zirela, beraien landare eta animaliekin.

Arrasateko hipermerkatua



EROSKI

zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

**Arrasateko Eroski Hipermerkatuan,
zure arrandegia Gabonetan!**




Gabon zoriontsuak guztioi!





n zuten. | IMANOL SORIANO




URKIA Abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Lehenengo hila eta lehen zuhaitza izerdia mugitzen. Urkiaren adarrekin kolpeak emanez uxatzen ei ziren izpiritu txarrak.



SAHATSA Apirilaren 15etik maiatzaren 12ra. Azala eta hostoak oso eraginkorrak omen dira sorginkeriak sortutako kalanbre edo karranpak sendatzeko.



HARITZA Ekainaren 10etik uztailaren 7ra. Haritzaren zurarekin etxeetako atea egiten ziren, horrek etxea babesten zuelakoan. Batzar lekutat ere erabiltzen zen.



MAHATSONDOA Irailaren 2tik 29ra. Alaitasunarekin eta haserrearekin lotzen da. Bepizkundeari kotsakratuta dago, espiralean hazten delako, ziurrenik.



LIZARRA Otsailaren 18tik martxoaren 17ra. Itsasoaren eta uraren botereen zuhaitza. Lizarraren zurarekin arraunak eta itsasontzien zenbait zati egiten zituzten.



ELORRIA Maiatzaren 13tik ekainaren 9ra. Ez omen da arropa berririk jantzi behar eta ezkontzea ere ez ei da komeni. Derrigorrezko kastitatearen hilabetea.



HURRITZA Abuztuaren 5etik irailaren 1era. Edertasunaren, jakinduriaren eta ugalkortasunaren ikurra; ezkonberriei hurrak oparitzen zitzaizkien.




INTSUSA Azaroaren 25etik Abenduaren 23ra. Fruituak oso berandura arte ditu. Sendabelar gisa erabiltzen da, baina usainak gaixotu egiten zuela uste zuten.


SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!



Fagor Etxetresnetako 417 bazkide birkokatu dituzte

Datozen sei hilabeteetan beste 400 birkokapen egitea aurreikusten dute

IRATI GOITIA | ARRASATE

Mondragonetik jakinarazi duteenez, Fagor Etxetresnetako 417 bazkide Mondragon Korporazioaren beste kooperatiba batzuetan ari dira lanean. Horrenbestez, Korporaziotik adierazi dute: "Mondragonek enpleguarekin duen konpromiso irmoa gauzatzen ari da, Fagor Etxetresnak aurre-konkurtsuan sartu zenetik bi hilabete pasa direnean, 417 bazkide jada birkokatzea lortu baita".

Datozen sei hilabeteetan beste 400 birkokapen egin agal izateko plan bat zehazten ari direla ere jakinarazi dute.

Lagun-Aro EPSVren batzarra

Abenduaren 27an Lagun-Aro EPSVren Batzar Nagusia egingo dute. Bertan, Kontseilu Errektorak enplegu laguntzarako prestazioaren kuota igotzea proposatuko du. Horretaz gain, konkurtso prozesuetan dauden enpresetan, 55 urtetik gorakoek aurre-erretiroa hartu ahal izateko neurriak sustatzea ere planteatuko da. Fagor Etxetresnetako bazkideen kolektiboan 300 per-

tsona inguru daude aurre-erretiroa hartzeko moduan.

Korporazioak helburu du birkokapen eta aurre-erretiro bitartez, 1.000-1.200 pertsona ingururi irtenbidea eskaintzea.


Grumalekoak manifestazioan

Azpeitiko Grumal enpresako langileek greba eguna zuten egubakoitza enpresan eta manifestazioa egin zuten Arrasateko kaleetan. Seber Altubetik irten ziren 200 langile inguru eta Mondragon Korporazioaren egoitza nagusiraino joan ziren euren lanpostuen aldeko eta Gisasola eta Bengoetxearen aurkako oihuen artean. Egoitzara helduta, Grumaleko langileak egoitzara sartzen saiatu ziren, baina ateak itxita zeuden. Herriko plazan bukatu zen manifestazioa eta, amaieran, duela aste batzuk baino egoera okerragoan daudela adierazi zuen Langileen Batzordeko presidente Patxi Isasmendik: "Informazioa komunikabideen bitartez jasotzen genuen eta, egun, modu berean jarraitzen dugu. Are gehiago, dagoeneko ez dugu Mondragon

Korporazioko ordezkariekin bilatzeko itzaropenik". Bestalde, Grumaleko langileek Fagorrekoen baldintza berak nahi dituztela adierazi zuten, egin diren birkokapen harira. Eta gaineratu: "Fagor eta MCCk bere garaian nahi izan ez zutelako ez gara gu kooperatibista". Egubakoitzeko manifestazioarekin amaitu zuten joan den martitzenetik herrian egiten zebiltzan kanpaldia.

Ordainduren elkarretaratzea

Ordaindu plataformak astero egiten duen elkarretaratzea egin zuen egunean. Bertan, plataformak elkarrekin bihurtzeko tramiteak hasiko dituztela aurreratu zuten. Bestalde, plataformako zenbait kide Fagor Taldeko kontseiluekin batu ziren joan den astean eta jakin zuten kaltetuei ordaintzeko fondoa sortzeko proposamena Fagor Etxetresnek egin behar dutela, ondoren Korporazioari bidaltzeko. Olabe ez zen oso baikor azaldu. Abenduaren 30ean, berriz, Kontsumobiderekin elkartuko dira. Hurrengo bilkura urtarrilaren 9an egingo dute.



Deskargako tunela elkartzea lortu zuten unea ospatzen. | ALDUNDIA

GI-632 errepide berriko Deskargako tunelaren bi aldeak elkartu dituzte

Aldunditik adierazi dute lanak bide onetik doazela eta egindakoa urrats garrantzitsua dela

I.G. | ARRASATE

Bidegi eta Gipuzkoako Foru Aldundia GI-632 errepide berriko (Beasain-Bergara) azken bi zatia egiten ari dira eta egubakoitzean Urretxu-Antzuola zatiko Deskargako tunelaren bi aldeak elkartzea lortu zuten. Tunela 650 metro luze da eta norabide bakoitzean hodi bat du (bi errei norabide bakoitzean).

"Lanak bide onetik"

Aldunditik zehaztu dute tunela eraikitzerakoan hainbat arazo izan zirela, luiziak izan zirelako, baina arazo horiek konpondu direla eta lanak martxa onean doazela aurrera. Hain zuzen, Larraitz Ugarte, Azpiegitura eta Mugikoetasun diputatua, lanetan izan zen eta poza azaldu zuen: "Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bidegi lan handia egiten ari dira GI-632 errepide berria 2015eko apirilera arte errealitate izan dadin, eta gaurkoa bide horretan urrats garrantzitsua izan da". Gaineratu zuen errepide hau Aldundiarentzat oso garrantzitsua dela, Gipuzkoa eta Euskal Herria egituratzeko estrategikoa delako.

Bestalde, Ugartek esan zuen Deskargako lanak eredugarri izatea nahi dutela: "Gauzak beste modu batera egin daitezkeela erakutsi nahi dugu: lan arloan sindikatuekin elkarlanean lan hitzarmena beteta, diru publikoaren kontrol zorrotza eginda eta lanak garaiz bukatuta".

Urretxu-Antzuola-Bergara

Urretxu-Antzuola zati berria 2011ko uztailean hasi ziren eraikitzen eta 30 hilabete epea dago lanak bukatzeko. Beraz, obra zibila bukatzeko epea 2014ko urria da, eta ondoren, instalazioetako lanak egin beharko dira.

Beasain-Bergara ardatzeko azken zatia Antzuola eta Bergara artekoa da eta hori da 2015erako bukatzea aurreikusten dena.

GI-632 errepide berriak, amaitutakoan, 23 kilometro izango ditu eta norabide bakoitzean bi erreikoa izango da. Lehenengo bi zatia dagoeneko zabalik daude: Beasain eta Zumarraga artekoa 2006an ireki zuten; Zumarraga eta Urretxuko zatia, 2012ko ekainean.



Grumaleko langileak Mondragon Taldearen egoitza nagusira bidean manifestazioan. | IURE EIZAGIRRE

Juanitosarena da Oñatiko eskaparate politena epaimahaiaren iritziz

Kimu loradendak jaso du, bestalde, herritarren bozka gehien: zehazki, 145

I.G. | OÑATI

Zapatuan banatu zituzten erakuslehiho lehiaketako sariak Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Interes handia piztu zuen. Aurtengoa seigarren ekitaldia izan da eta Mikel Biain alkateak oso balorazio positiboa egin zuen. Bestalde, Josu Lizarralde Sozioekonomia batzordeburuak adiera-

zi zuen merkataritzan urte garrantzitsua izan dela Perko Plana egin dutelako. Hurrengo urtera begira merkataritza sustatzeko egitasmoak ere aipatu zituen, esaterako, bono-sozialak.

Sarituak

Juanitosak irabazi zuen epaimahaiak ematen duen lehen saria,

Baruek bigarrena, Urrutia gizonak dendak hirugarrena, Letamendik laugarrena eta Sustrai batek bosgarrena. Bestalde, urtean zeharreko aldaketengatik ematen den sari berezia ere Juanitosa dendarentzat izan zen. Azkenik, herritarrendako erakuslehiho politena Kimu loradendarena izan da (426 bototatik 145 jaso ditu).



Erakuslehiho lehiaketako irabazleak eta Udaleko ordezkariak. | I.G.



Topaguneko presidente Mikel Irizar eta Udalbiltzako presidente Mertxe Aizpurua, eskua ematen. | EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Bostekoa Topagunearen eta Udalbiltzaren artean

Hitzarmena sinatu dute euskaltzaleen sarean harremanak indartzeko

IRATI GOITIA | ARRASATE

Euskaltzaleen Topaguneari Euskal Herri osoko euskaltzaleak aktibatuta eta saretzeko egiten duen lana babestu nahi izan du Udalbiltzak, lan hori garatu ahal izateko finantzazioa bideratuz, Euskal Herriko Garapen eta Kohesio Fondoaren bidez.

Bi egitasmo

Zehazki, 5.000 euroko diru-laguntza izango da Udalbiltzak Euskaltzaleen Topaguneari bideratutako diona bi egitasmotarako. Batetik, Topaguneari Ipar Euskal Herriko euskaltzaleen elkarte antolatuekin sare lana zabaltzeko, eta bestetik, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan, euskaltzale elkarteek bultzatutako *Euskarak 365 egun* ekimenaren

garapenerako. Hitzarmena sinatu duten bi aldeek azpimarratu dute egitasmo hauek euskaltzaleen mugimendua hazi eta indartzeko oso garrantzitsuak direla.

Euskaltzaleak saretzen

Hain zuzen, Topaguneko presidentek Mikel Irizarrek aurkezpenean esan zuen euskaltzaleen mugimendua asko garatu dela Topaguneari sortu zenetik eta azken urteotan gero eta euskaltzaleen elkarte gehiago sortzen ari direla nabarmendu zuen. Eta gaineratu, Topaguneari apustua egin nahi izan duela euskaltzaleen sarea osatu eta harremanak indartzeko. "Arlo horretan 2013 eta 2015 urte artean egingo den lanerako Udalbiltzaren laguntza beharrezkoa da", esan zuen.

Bestalde, Irizarrek agerraldia baliatu zuen aurten martxan jarri duten *Euskarak 365 egun* ekimenaren lehen balorazioa egiteko: "Euskaltzaleen elkarten mugimenduak bultzatzeko ekimenak bete ditu helburu nagusiak".

Udalbiltzaren konpromisoa

Mertxe Aizpurua, Udalbiltzako lehendakariak, berriz, honakoa esan zuen hitzarmenaz: "Euskarari berebiziko garrantzia ematen diogu. Udalbiltzaren Nazio Gobernua euskararen transmisioa eta erabilpen soziala sustatu nahi ditu eragileekin elkarlanean, eta euskara ofiziala ez den lurraldeetan hizkuntz politikan eragin nahi du. Topaguneari dugun akordio honek bi arlo horiek jasotzen ditu".

Bertako elikagaiak kontsumitzeko, Jaurlaritzak eta Eroskik hitzarmena

Eguenean sinatu zuten eta helburua da tokiko elikagaien industria indartzea

I.G. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak eta Eroskik lankidetzara hitzarmena sinatu dute Euskadiko nekazaritza eta arrantza sektoreko elikagaiak bultzatzeko.

'Zurekin' denda eredia

Konpromiso horren adierazle praktiko garrantzitsua *Zurekin* denda eredu berria da. Izan ere, eredu horren bidez, Eroski bere sare komertziala eraldatzen hasi da tokiko produktuei protagonis-

mo handiagoa emateko helburuarekin.

Garapen programak

Hitzarmen honen helburua da tokiko elikagaien industria indartu eta garatzea. Eta hala, hogeigarapen programa ezberdin baino gehiago jarriko dituzte martxan, kontsumitzaileak bere eskualdeko produktuak eskuragarri izan dituzten Eroskiko supermerkatu eta hipermerkatuetan. Hala, Euskadiko arrain, haragi,

barazki eta esnekien eskaintza sendotu du Eroskik.

Akordioan urteko egutegi bat ere ezartzen da EAEko elikagai laguntzeko. Horretaz gain, lankidetzarako konpromiso bat ere jasotzen da, bai bertako lehengai baliu erantsia emango dieten produktu berriak merkaturatzeko, eta baita EAEko nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa traktoreei laguntzeko.

Eroskiko lehendakari Agustin Markaidek aurkezpenean esan

Aurtengoa aspaldiko urterik euritsuena izan dela zehaztu digu Pello Zabalak

Guztira 2.471 litro bota ditu euritan; udazkena ohi baino eguzkitsuagoa izan da, ordea

I.G. | ARRASATE

Iritsi gara ia urte amaierara eta Pello Zabalari urteko balantzea egitea eskatu diogu. Berak esan digu gehienok euri kopuruari begiratzen diogula urteko balorazio egiterako orduan eta zehaztu digu azaroa, urtarrila eta otsaila izan direla hilabete euritsuena, hurrenkera horretan. Guztira, 2.471 litro batu dira urte guztian zehar. "Aspaldiko urtetako zifra gailendu du horrek". Zehaztu digu euririk argiago uler daitezkeela ilar-giaren gorabehera begirata. "Sei ilar-gialdi izan dira oso euritsuak: otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain eta azarokoak.

Guztira 2.062 litro. Beste sei, giro argiagokoak izan dira: 409 litro".

Bestalde, esan digu asko hitzegin dela aurtengo udazkena oso euritsuena izan dela, baina Zabalak ezetz esan digu. "Arantzazun 47 urteko datuak ditugu eta 12 urte dauzkagu jasota aurtengo udazkena baino euritsuagoak. Azaro euritsuak hala pentsarazi badigu ere, beste urte mordoxka izan dira euritsuagoak, orain dela bost urtekoa kasu, 2008a, ia mila litro batu genituen". Bestalde, zehaztu digu eguzki ordu asko izan ditugula aurtengo udazkenean. "Batuz-bestekoa baino 30 ordu gehiago izan ditugu".

Adin txikiko batengana ustez era susmagarrian hurbildutako gizonaren gaineko ikerketa abian

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Bergarako Udaltzaingoa eta Ertzaintzak ikerketa ireki dute adin txikiko batengana ustez era susmagarrian hurbildu zen gizon baten inguruan.

Bergarako Udalaren webgunean zintzilikatu duten albistearen arabera, gertaera hilaren 19an jazo zen. "Bergarako Matxiategi kalean, 9 eta 11 urteko bi neba-arreba kalean zirela, ustez, gizon bat hurbildu zitzaion neskatilari, eskuetatik heldu eta gurasoen izenak galdegin zizkion. Neskatok susmo hartu, larritu eta, mutikoari

deitu zion. Azken hau oihuka hasi eta, neska-mutikoen esanetan, korrika alde egin zuen gizonak", dio Udaltzaingoa, eta gaineratzen du: "Haurrek gizonaren deskribapena eman dute baina, oraingoz, bere identitatea ez da ezagutzen". Ikerketa martxan ipini dute.

Hainbat bertsio

Hilaren 19ko gertaeraren gaineko hiruzpalau bertsio daude herrian, eta guztiak nahiko nahasiak. GOIENAK ezin izan du jakin zehatz-mehatz zer gertatu zen.

zuen: "Akordio honetan islatzen da tokiko ekoizleen aniztasunaren alde egin dugun apustu irmoa".

Tokiko azokak

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, laguntza eta babes instituzionala emango dizkio Eroski eta EAEko nekazaritzako elikagaien arteko akordioei. Eta bat egingo du Eroskik tokiko ekoizleekin lankidetzara sustatutako azokekin.

'On line' salmenta

Lankidetzara hitzarmenean jasotzen diren garapen programa berritzaileenetako bat da Eroski den Internet bidezko komertzializazioak eta tokiko produktu freskoen *online* salmenta egitea. Hala, Eroskik bere *e-commerce* plataforma eskaini dio Hazi Fundazioari lehen sektorean merkataritza elektronikoa garatzeko.

Bestalde, akordioan zehazten da Eroskik euskal elikadura enprekin lankidetzara jardungo duela, euskal enpresa horien produktuak nazioartean sustatzeko helburuarekin.

Akordioa egunean sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko sailburu Arantza Tapiak eta Eroskiko lehendakari Agustin Markaidek.

Tapiak esan du hitzarmenarekin Euskadiko ekonomia produktiboaren oso zati esanguratsua ordezkatzaren duen sektore profesional eta lehiakor baten alde egin dutela. Eta gaineratu du gure herrialdeak lehen sektore estrategiko, lehiakor eta bizia izango badu, denon ahalegina, erantzukizuna eta konpromisoa behar dela erosketa eta kontsumitzeko ohituretan.

Debagoieneko etxebizitza bakoitzak bi bizilagun ditu

- ▶ 29.526 familia-etxebizitza daude, INEren arabera
- ▶ 31.454 higiezin eta 5.293 eraikin daude ibarrean

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Etxebizitzaren gaineko inoizko estatistika-operazio handienaren emaitzak kaleratu berri ditu INEk, Espainiako Estatistika Erakundeak. Hain zuzen, 2011an eguneratutako datuekin, Hego Euskal Herriko eta Espainiako udalerrri, probintzia eta erkidego guztien etxebizitza eta higiezinaren gaineko askotariko informazioa eman du.

Debagoienari eta Aramaiori dagokionez, denetara 29.526 familia-etxebizitza daude; horietatik 28.845, eskualdean, eta 681, Aramaion. Debagoienean daude Gipuzkoako familia-etxebizitzaren %8,79.

Bestalde, INEren arabera, Debagoienean eta Aramaion 63.533 biztanle ziren 2011n; beraz, etxebizitza bakoitzeko, batez beste, 2,1 pertsona bizi ziren.

Familia-etxebizitzetatik 24.919 familia horren etxebizitza nagusia dira, totaletik %86,38; proportzioa ia berbera da Gipuzkoa osoko datuak hartuta. Aramaioren kasuan, 681 horietatik 577 dira etxebizitza nagusia, %84, gutxi gorabehera; Araba osoan, koskatxo bat handiagoa da proportzioa: %86,73.

Debagoienean, 31.454 higiezin-unitate eta 5.293 eraikin daude; azken horien artean, etxebizitzak eta bestelako eraikin batzuk.

Gipuzkoan, 52.393 etxebizitza eta 353.234 higiezin-unitate daude; azken horretan, etxebizitzarako eraikinak, finkak, partzelak eta bestelako higiezin batzuk sartzen dira.



Antzinako eraikin asko

Eraikinen antzinasunari dagokionez, Antzuolan, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin, denetara -2.000 biztanletik gorako herrietako datuak bakarrik batu ditu INEk-, eraikin kopuru handiena 1900 baino lehenago egindakoena da: herri horien artean 5.009 eraikin dira, eta horietatik 1.620 (%32,3) dira 1900 baino lehen egindakoak.

Hurrengo hamarkadetan, eraikuntzak dezentate egin zuen behera, eta berriz pultsua hartzen hasi zen 1951etik 1960era: 340 eraikin. Bigarren multzo handiena 1951tik 2011ra arteko sei hamarkadek hartzen dute: denetara 2.951 eraikin egin ziren sei herri horietan. 1971tik 1980ra egin ziren gehien: 684 (eraikin guztien %13,65).

Ondo zainduta

Debagoienean eraikin zahar asko egon arren, ondo zainduta daudela ere adierazten dute INEren datuek. 1920 aurretik 1.783 etxebizitza egin ziren esandako sei herri horietan, eta horietatik 1.422 (%79,75) kontserbazio-egoera onean daude.

%3,7 igo da azaroaren 30a arteko zerga bilketa pilatua

Zeharkako zergetan iaz baino %4,9 gehiago batu da, eta zuzenekoetan, %2,7 gehiago

L.K. | ARRASATE

Lehenengo hamaika hilabeteetako zerga bilketa pilatuan, iazko epe berean baino %3,7 gehiago jaso da. Zerga garrantzitsu gehienetan batu da diru gehiago. Zuzeneko zergak %2,7 igo dira iazko azaroa arteko epearekin konparatuta, eta zeharkakoak, %4,9. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen BEZ zerga %7 igo da; Ondare Zerga, %25,6; eta Sozietateen Gaineko Zerga, %11,5.

Gipuzkoako Foru Aldundia pozik dago emaitza horrekin, eta,

bere esanetan, "ezarritako helburuak betetzeko bidean" daude; hain zuzen ere, 2013ko aurrekontuak onartu zirenean, zerga-bilketa %4,4 hobetuko zela aurreikusten zuten. Emaitzak "are baikorragoak" dira, bere esanetan, azaroan herrialdeen arteko BEZen ajustea jaso ez dela kontuan hartuta.

Erreforma, bertan behera

Zergei dagokionez, foru gobernuak albiste txarra jaso zuen abenduaren 12an, EAJ, PSE-EE eta PP



Errenta aitortpena aurkezten, joan den apirilean. | L.K.

alderdiek Sozietateen Zerga erreformatzeko proiektuaren kontra bozkatu eta Batzar Nagusietatik kanpo utzi zuten. Erreforma horrek enpresa eta kooperatibendako zerga handiagoak ezartzea ekarri izango zukeen, kontuan hartuta gaur egun enpresendako

dauden zerga-tipo nominalak ere ez direla betetzen, hainbat kerkari dituzte-eta enpresek errenta aitortpena egiteko orduan. Pasa den Sozietate Zergaren kanpainan, irabaziak aitortu dituzten enpresek irabazien % 11,8 ordaindu diote, batez beste, Ogasunari.

Euskadiren I+G inbertsioa %2,08 hazi zen 2012an

L.K. | ARRASATE

Euskadik bere BPGren %2,12 inbertitu zuen iaz Ikerkuntza eta Garapenean; denetara, 1.372,9 milioi euro, aurreko urtean baino %2,08 gehiago. Eustat erakundeak emandako datuak dira.

Espainiako batez besteko datuak hartuta, I+G-n 2011n baino %5,6 gutxiago inbertitu zen, eta 2011n, 2010ean baino %2,8 gutxiago.

Espainiako Estatistika Erakundeak, INEk, berretsi egiten ditu joera horiek, eta Euskadik Espainiako edozein erkidegok baino gehiago inbertitu zuela esaten du: %2,19, bere datuen arabera. Horrez gain, erkidego guztien artean bakarrik EAEk eta Gaztela-Leonek inbertitu zuten lehen baino gehiago; beste erkidego guztietan behera egin zuen inbertsioak. Bestalde, Europako Batasunaren 2010eko datu berrienak urte horretakoak dira- batez bestekoaren gainera zegoen Euskadiren inbertsioa.

Eustaten arabera, I+G sektoreak 18.682 langile zituen 2012an, osoko jardunean.

Telebistak dira oraindik teknologia gailu oparituak

L.K. | ARRASATE

Gabonetako oparitarako erosten diren teknologia-aparailu eta tresnen artean, oraindik telebistak dira gehien erosten direnak; horrela dio *Pixmania.com* atariak. Hain zuzen, erabiltzaileek webgune horretan Gabonetarako gehien erosten dabilten 10 produktuetatik lehenengo biak LED telebista monitoreak dira, eta lehen seietatik lau.

Produktuen zerrenda horretan, arrakastatsuenetako beste bat poltsikoko telefono inteligente modelo ezagun bat da. Produktu hori, barrietate desberdinekin, zerrendan hiru aldiz agertzen da.

Bi sarrera dituzte tablet motako ordenagailuek, 5. postuan 10 hazbeteko bat eta 9.an bestea, 7 hazbetekoa. Azkenik, hari bako tinta-txorroko koloretako inprimagailua ere badago zerrendan.

Produktu salduena, 3Dko LED telebista inteligente bat, 539 euro kostatzen da. Zerrendako produktu garestiena 739 euroko telebista bat da. Mugikor salduena 329 euro kostatzen da, eta garestiena, 440,44. Tableta salduenak 111 euroko bat eta 49,90eko beste bat dira.

Energia Elektrikoko masterreko diplomadunak

MUko Energia Elektrikoko Master Profesionaleko lehen promozioa ikasleek diplomak jaso zituzten egubakoitzean Bilbon. Bost enpresatako 13 profesionalak egin dute masterra. Funtsezko sektore ekonomiko baten hutsuneak bete nahi dituzte masterrak.



Arkaitz Zubiaga | Informatika-ingeniaria eta kazetaritza konputazionalan aditua

"Herri-kazetaritzak ez du kazetariaren irudia zalantzan jartzen, baina bai berriro definitu"

- ▶ Informatika-ingeniari arrasatearra Dublinen da, datuen analisiaren gaineko ikerkuntzan
- ▶ Sare sozialek kazetaritzarendako irekitzen dituzten aukerak aztertzen ditu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Informatika Ingeniaritza eta doktoretza egin ondoren, gaur egun Dublinen doktorego ondoko iker-tzaile dihardu Arkaitz Zubiaga 31 urteko arrasatearra. 2006. urtetik Arrasatekan kanpo dago; gaur egun, Irlandan dago, Internetek eta kazetaritzak duten harremana aztertzen.

Aspaldian Arrasatekan kanpo zaude. Zertan diharduzu gaur egun?

Gaur egun Dublinen bizi naiz, baina tartean Bartzelonan, Madrilen eta New Yorken egon naiz bizi izaten. Dublingo Institutu Teknologikoan (Dublin Institute of Technology) nabil lanean, konkretuki CeADAR izeneko proiektuan parte hartzen. Proiektu honetan datuen analisiaren gainean ari gara ikertzen. Nire ikerketa lerro nagusia kazetaritza konputazionala da. Bereziki sare sozialek gaur egun duten garrantzia dela-eta, aukera berriak eskaintzen dituzte kazetaritzaren mundurako. Alde batetik, albisteak irakurleei helarazteko medio berri bat eskaintzen du, eta hori aukera paregabea da irakurlearengandik gertuago egoteko. Eta bestetik, informazioa jasotzeko ere baliabide aparta da, jendeak herri kazetaritza deritzona egiten baitu, eta inguruan duenaz informatzen baitu sarritan; kazetariarentzat urrezko informazioa izan daiteke hori, ondo miatuz gero. **Zeintzuk dira zure ikerkuntza-arlo gogokoak?**

New Yorken nengoela, nire ikerketa-interesekin jarraituz, kazetaritzaren mundua lantzen hasi nintzen. Alde batetik, albisteekin egunero dugun interakzioa, sare sozialen ikuspegitik: zer elkarbanatzen du gehien jendeak? Kazetariak aukeratzen dituzten albisteak eta irakurleen interesak bat datoz? Esate baterako, *New York Times*-en azala aztertu genuen urtebetez, eta analisiaren arabera, kazetariak politika eta ekonomia bezalakoak nabarmen-tzen dituzte azalean, baina irakurleek nahiago dituzte musika eta zientzia bezalako aisirako gaiak. Zer pentsatu ematen du albiste aukeraketarako.

Bestalde, kazetariendako, sare sozialetatik, informatikaren laguntza albiste bilketa nola erraztu daitekeen aztertzen ibili naiz. Esate baterako, istiluak baldin badaude nonbait, eta kazetariak ezin badu bertan egon, informazioa, irudiak eta lekuko bila joko du askotan sare sozialetara. Nola jakin daiteke sare sozialetako erabiltzailea lekukoa den, eta

hala bada, ematen duen informazioa egiazkoa den? Horrelakoetan laguntzeko tresna bat sortu genuen, eta baita kazetariarekin probatu ere. Ikertutakoaren arabera, adibidez, Twitterrek kazetariarentzako baliagarria den informazio asko hasieran erakusten ez duela ikusi dugu. Txio edo tweet bat egiaztatzeko, garrantzitsua da idatzi duen erabiltzailea nor den ondo aztertzea, eta Twitterrek erabiltzailearen iruditxoa eta izena baino ez ditu erakusten hasieran. Kokapena, deskribapena eta kontaktuak bezalako beste datu batzuk jakitea nahitaezkoa da pertsona hori fidagarria den jakiteko.

Internet eta informazioaren gizar-tearen arteko harremanaren gainean gauza jakin asko daudela esango zenuke, edo oraindik ikerkuntza-arlo berri samarra da?

Oraindik asko dago jakiteko. Ezinbestekoa da jendeak Interneten zer eta nola kontsumitzen duen jakitea, unean uneko zerbitzua eskaintzeko. Gaur egun, esate baterako, denbora errealeko analisia egitea da joera nagusietako bat, berehala aldatzen den mundua baita Internet. Atzo interesatzen zitzaigunak agian ez du zentzu handirik gaur, eta etengabe berri beharra dago. Albiste munduan, esate baterako, garai batean hurrengo eguneko egunkaria erosi arte itxoin zitekeen. Interneten, bestalde, goizean gertatzen den albiste garrantzitsua ez da berria arrasatean, eta jendeak erreakzioak eta ondorioak ikusi nahi ditu orduan, albiste bera zaharra baita.

Nola ikusten duzu herritarren papera berriemaile gisa? Kazetariaren irudia zalantzan jartzen duela uste duzu?

Nik ez dut uste herri-kazetaritzak inola zalantzan jartzen duenik kazetariaren beharra; kazetaritza birdefinitu bai, hori seguru. Kazetariak lehenago ez zuen informazio iturri berri bat dauka bere eskura: herri kazetaritza. Sute baten aurrean, manifestazio batean, futbol zelaian... dagoen erabiltzaileak berehala zabal dezake, sare sozialetan, ikusten duenaren berri, herri-kazetari bilakatuz. Horrela, herri-kazetariak argazkiak, bideoak edo informazio apurrik zabaltzen dituzte sare sozialetan. Kazetariaren lana, ordea, horiek guztiak bateratu, kurazioa egin eta han eta hemen informatuz testuingurua gehitzea da, gertakizun osoaren istorioa emateko irakurleari.



Arkaitz Zubiaga informatika-ingeniari arrasatearra. | ARKAITZ ZUBIAGA

"Kazetariarendako urrezko informazioa da herri kazetaritza, ondo miatuz gero"

"Apurrik batu eta gertakizun osoaren istorioa eman behar du kazetariak"

"Lehena izan nahi izateak arriskuan jartzen du datuen egiaztapena"

Balio erantsi hori ematen duen bitartean, zentzua izaten jarraituko du kazetaritzak.

Nola egiazta daiteke herritarrek bidaltzen duen informazioa?

Herri-kazetariak zabalduetako informazioa egiaztatzeko biderik egokiena berarekin kontaktuan jartzea da; egia baldin bada, froga gehiago eman ditzala eskatu. Esate baterako, norbaitek zalantzarria dirudien argazkia jarri badu, beste bat bidal dezala eska dakioke, lekukoa baldin bada ez baitu arazorik izango beste argazki bat ateratzeko, eta horrek erakutsiko du egia esaten ari dela. Ez da erraza, hala ere. Kontu handiz egin beharreko zerbait da.

Eta kazetaritzak badu egiaztapena arriskuan jartzen duen zerbait: lehena izan nahi izatea. Sare sozialetan egiaztatu gabeko informazioa zabaltzen da batzuetan, esate baterako pertsonaia famaturen baten heriotzaren gai-

nekoa. Azken urteotan gezurrezko kasu asko zabaldu dira, eta kasu batzuetan komunikabideetara ere salto egin dute, albiste azkar eman nahi izateagatik. Baloratu beharreko zerbait da, lehena izan ala zehatza izan nahi den.

Goiena.net-ek orain komunitatean oinarritutako eredu berria dauka. Zukaztertu dituzun komunikabideak publiko integratzeko ereduak badabilta asmatzen?

Denetik dago; batzuk nahiko ondo ari dira asmatzen. Internetek ematen dituen aukera berriekin indar handia hartzen ari den aukeretako bat datu kazetaritza da: gizartean interes handiko gai bat jorratu, eta datuen eta grafiken bitartez istorioa landu. Irudi eta bideoen bitartez aurkezpen interaktiboak egiten dituzte batzuek erabiltzailearengan interesa pizteko. Horrelakoetan esango nuke Interneten *New York Times* dela eredu garri. *New York Times*-ek berriki aurkeztutako beste esperimentu bat *Times Minute* delakoa da; egunero minutu bateko bideoa sortzen dute, eguneko albisteak laburtuz. Ikusi beharko da harre- ra zer nolakoa den, baina irakurleak erakarri eta beste eduki batzuk bisitatu ditzaten modu aproposa izan liteke.

Hala ere, poliki-poliki probak eginez hobetzen dabiren zerbait da. Batzuek, esate baterako, aztertu egiten dute irakurleak zenbat denbora ematen duen beraien orrialdeetan, eta baita noraino irakurtzen duten ere. Albisteren batean gehienek lehen bi paragrafoak irakurtzen badituzte, eta hortik aurrera utzi, zerbait esan nahi du. Hasieran gehiena ematen da, eta ondoren kalitateak behera egin du, irakurleak asper-tuz, adibidez.

Nola ikusten duzu euskara sare sozialean eta Interneten, oro har?

Nahiko ondo ikusten dut nik, euskaraz badagoelako aukera zabala. Alde batetik, baditugu euskarazko webgune dezente, albistegiak eta Wikipedia barne, euskaraz informatzea ahalbidetzen dutenak. Baina, bestalde, euskarazko softwarea ere badago, eta ordenagailua ere euskaraz izan daiteke, Librezeal bezalako mugimenduei esker. Uste dut horrek guztiak sendo mantentzen duela euskara Interneten, eta datorren udaberrietik aurrera egoera indartuko delakoan nago, Interneteko .eus domeinuaren etorrerarekin batera.

ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR
http://goiena.net/iritzia/



Errotonda

Inguruko herrietakoentzat Antzuola ezaguna izan da semafororik gabeko herria izateagatik. Azkenaldian, berriz, ezagunagoa izan da errotondarik gabeko herria izan delako. Bada, gaurtik aurrera guk ere badugu gure errotonda, Sagasti auzoan hain zuzen ere, eta honek nork bere bidea hartzea erraztuko duelakoan nago.

Euskal Herria, ordea, urtetan ibili da errotondan bueltaka. Jira eta buelta, bere bidea egin ezinik, eta herritarrak bitartean zorabiatuta.

Ezker abertzaleak errotonda horretatik irteteko hautua egin zuen duela bi urte pasa; beste batzuek hor jarraitzen dute, errotonda berean tematuta.

Aurten ere adibide ugari izan ditugu: epaiketak, atxilotak, presoan heriotzak...

Errotondan nahi gaituzte, bueltaka, ondoezak jota, baina alperrik ari dira.

Herri honek ez du horrelako errotondarik nahi, bere bidea eginez aurrera egin nahi du-eta.

Horretarako guztiok jarri behar dugu gure aletxo, eta 2014an badugu horretarako aukera: lehenengo, urtarrilaren 11n Bilbon, tantaz tanta Bilboko kaleak itsaso bihurtu behar ditugu; bigarrena, ekainaren 8an, Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katean, munduari eta batez ere geure buruari erakutsiko diogu, Eskozian eta Katalunian bezala, gure herriaren etorkizuna gure esku dagoela.

Hortxe dago gako, guk geure buruarengan izan behar dugu konfiantza.

Gure Esku Dago ekimeneko kide den Angel Oiarbideri entzun nion bezala: "Sinistu behar dugu gure esku dagoela, inoren zain egon gabe".

Beste Angel batek, aurten preso eta gaixorik hil den Angel Figueroa lagun minak bere gutunetako batean idatzi zidan bezala: "Aberria eta bizi!"

USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.com

Herritarren laguntzarekin

Azken gazteenari oinetakoak erostera joan nintzen duela hiru bat aste herriko, Oñatiko, denda batera. Oñati Irratia zuten jarrita. Poztu nintzen. Handik egun batzuetara, herriko dentista batengana joan nintzen, hagineko minari erremedioa jartzera. Nire ondoren sartu zen gizonak GOIENA aukeratu zuen, bere txanda heldu bitartean, irakurtzeko. Orduan ere poztu egin nintzen. Herriko dendari eta komertzioek konfiantzako produktu eta zerbitzuak dituzte herritarrondako, eta gure beharra dute horretan jarraitzeko. Herriko komunikabideok ere herritarron laguntzari esker egiten dugu lana eta asko poztzen gara jarraitzen gaituzuelako. Eskerrik asko eta urte berri On!

KALE INKESTA

Ze iritzi duzu Igeldoko desanexioaren inguruan?



IZAR USOBIAGA
BERGARA

"Oso ondo pentsatzen zait. Igeldotarren gehiengoak hori erabaki badu, errespetatu egin behar da".



JESUS MARIA ERRASTI
ARETXABALETA

"Niri ondo iruditzen zait. Beraiek erabaki badute independentzia nahi dutela beraien iritzi errespetatu beharko da".



MARI CARMEN IRAOLA
ARRASATE

"Batzuk esaten dute irtendako portzentaia txikia dela desanexiorako, baina, hori erabaki badute onartu egin beharko da".



JULEN BARRUTIA
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait. Gainera herritarrei aukera ematea beraien iritzia adierazteko oso erabaki egokia da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Iraultzeaz eta Pantojismoaz

Amaia Lekunberri
argia.com/blogak/amaia-lekunberri//

Betidanik piztu dit halako grina bat iraultzearen ideiak, gauzei pare bat buelta eman eta hauei buruz behera nagoela begiratzeak.

Ekintza sortzailea iruditzen zait, oso gutxitan bueltatzen baita iraultako hori bere lehengo izatera, orokorrean formaz aldatuta eta indartsuago azaltzen baita. "Suntsipenarenaganako pasioa, pasio sortzailea da", nire barrenean ere sona ikaragarria zuelako, luzaroan bete zuen Bakuninen esaldiak ikasle garaian logelatzen izan nuenaren paretako txoko prestigiotsua.

Ederra zen Bilboko gela hartako pareta, ederra ideien funtsa, baina aipua dekorazio hutsa gisa gelditu ez zedin, sarri saiatu izan naiz ideia hori praktikan jartzen.

Itziar Ziga irakasletzat, maitasuna iraultzea izan da nire azken saiakera.

Asteburuaren zati ederra patriarkatuaren baitan eta kulturalki eraikiak izan diren pertsonen arteko loturei buelta

batzuk ematen pasa dugu feminista hereje honek deitutako akelarerra hurbildu garenok.

Hamaika aldiz buruz behera jarri eta geure ongizatearen gainetik eraiki ohi ditugun harreman gatazkatsu eta mingarriak aztertzen aritu gara, nola ez, patriarkatuak irentsarazten dizkigun erromantikotasun dosi kaltegarriak jo puntuan jarriaz momentu oro.

Maitasunaren inguruko diskurtsoen gogoeta, maitasuna hizpide duten kantu eta filmen analisiak edota senide, lagun zein bikoteengan erazten ditugun harremanenganako hausnarketek okupatu dute denboraren gehiengo.

Hala ere, zingiratsu suerta daitekeen maitasun harremanen kontuan sakontzeko inolako intenziorik gabe, ikastaroko beste alderdi bat plazaratzeko aprobeztatuko dut gaurkoan.

Pantojismoa, word-eko zuzentzaileak ere gorritz azpimarratzen duen terminoa mahaigaineratu nahiko nuke gaurkoan.

Bere garaian ExDones kolektiboak sortutako Pantojismo tailerrak maitasun erromantikoaren eraginez egin

izan dugun edo egin izan diguten hori parodia gisa antzeztea bilatzen du.

Terminoak kontrakoa adierazi dezakeen arren, tailerrak ez dauka zerikusirik Isabel Pantoja kopla abesariarekin.

Soilik, biktimismoan erori eta beti negarrez dabilen emakumearen mitoa gorpuztu izanagatik hartu zaio izena andaluziarrari, terminoa ezin hobea baita tailerraren helburua lortzeko, geure baitan daramagun kulebroietako heroina atera, berarekin bakeak egin eta geure buruaz barre egiteko alegia.

Hitz gutxiarekin eta motzean esanda, antzerkiaren eragin iraultzailea geure jabeakuntzarako giltza gisa erabiltzeko.

Borroka orotan seriotasunak besteko itzala eduki beharko luke irriak eta honen birus askatzaileak, Dut taldeak bere garaian abesten zuen bezala, ni aske izatearen beldur naizen bezala, batenbat beldur baita ni aske ikustez.

Atera dezagun gure barruan daramagun kulebroietako heroina, irauli dezagun berau eta indartu gaitezen geure buruez barre eginaz.

Izan aske, izan Pantoja!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailletako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goitz Arana
Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifiano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adieraztako inntzen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK



Aurkezpen ekitaldian, Espartza, Isazelaia, Zabaltza eta Unamuno. | JAGOBA DOMINGO



MARIJE UNAMUNO
GARAPEN TEKNIKARIA

"Premia zehatzak lotu eta elkartzeko asmoa dugu etorkizunean"

Marije Unamuno Udaleko Garapen Teknikaria da eta sare honen ekintzailetako bat.

Zein izango da enbaxadorek egin beharreko lana?

Modu askotakoa izan daiteke, baina momentuz Antzuola, Bergara eta Elgetako herrietako enpresei bideak erraztea lehenetsi nahi dugu.

Zer dela eta bururatu zitzazuen halako ekimen bat aurrera eramatea?

Foroan parte hartzen duten enpresek atzerrian merkatuak irekitzeko premia ezagututa eta negozioak kokatzeko aurkitzen zituzten arazoak adierazi ziguten, bestalde kanpoan dauden herritarrek ere izan dezakete interesa hemengo enprekin harremanak izateko. Besteak beste helburu horiek buruan ditugula jarri nahi dugu martxan ekimena.

Sarea handitzeko ekintzak aurrera eramango dira?

Bai, orain atzerrian daudenekin hasiko gara, baita ere bertako enpresetatik erbestera bidaiatzen dutenen langileekin eta hemengo enpresen premia zehatzak lotu eta elkartzeko asmoa daukagu etorkizunean.

Norbaitek izen eman nahi badu zer egin beharko du?

Berelan Foroak baditu bere helbideak, www.berelanforoa.net eta LinkedInen ere bada. Bertatik jaso ahal izango dituzte argibideak.

Herritar asko dago kanpoan bizitzen?

Ez dugu ezagupen zehatzik, baina ikasleen artean kanpora ateratzea aukera erreala bihurtzen ari da eta enpresetatik ere internazionalizazio prozesua gera ezina da.

"LinkedIn sarea erabiliko du, bertan argibideak daude"

BERGARA

Enbaxadore sare berria

- ▶ Atzerrian dauden herritarrak enbaxadore bihurtzeko sarea martxan
- ▶ Abenduaren 27an egingo dute bilera, interesa duten guztiekin

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Berelan foruak, Enbaxadoreak ekimena aurkeztu berri du. Ekimen honen helburua da "hemengo eragile sozioekonomikoen eta kanpoan diren herritarren, gure lurraldearen enbaxadore papera hartuko luketenen arteko sare bat sortzea gurean garapen ekonomikoa bultzatzeko", hala definitu du Jaione Isazelaia alkateak ekimen berri hau komunikabideen aurrean eginiko aurkezpenean. Alkatea baina, ez da bakarrik egon, berarekin batera Xabier Zabaltza eta Iñaki Espartza, sorburutik Berelaneko kideak direnak, eta Marije Unamuno Udaleko Garapen teknikaria izan dira hizketan.

Gure lurraldean aberastasun ekonomikoa eta soziala garatzeko helburuarekin 2. Sektorea Biziberritzeko Mahaia sortu zuen Bergarako Udalak, hainbat eragile sozioekonomikorekin batera orain bi urte eta une honetan Antzuola eta Elgetako Udalek ere foroan parte hartzen dute.

Mahai honek eman dituen fruituen artean aurkitzen da Berelan Foroa, erbestean dauden

herritarren eta hemengo eragile sozioekonomikoen artean hainbat harreman sustatu eta bideratu nahi dituen sarea, produkzio-sektore eta gizarte-indar guztien partaidetza ahalbidetuta.

Berelaneko partaide bezala, erbestean dauden bertoko herritarrak gure lurraldearen "enbaxadore" izango dira bizi diren lurraldean eta era guztietako proiektuak gauzatzen, garatzen edota bultzatzen parte hartzeko aukera izango dute hemengo eragile ekonomikoekin eta erakundeekin batera. Honela, "kanpoan bizi diren herritarrak aktibo garrantzitsu bilakatu nahi" dituzte "gure lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala zein kulturala bultzatzeko" adierazi dute.

Interesatuendako bilera

Jaione Isazelaia alkatea adierazi duenez, "interesa izan dezaketen herritarrei eskutitz bat bidali zaie sarean parte hartu eta dauden tokian daudela enbaxadore izan daitezkeen" izan ere, "Gabon inguruan etxera etortzen ohi dira herritarrak eta beraz, proiektu berri honen berri eman-

go diegu abenduaren 27an, 19:00-tatik aurrera" gaineratu du alkateak. Halaber, LinkedIn sare sozialaren bidez harremanak aurrera eramango direla jakinarazi du Isazelaia.

Hala ere, interesa izan arren bertaratzeko aukerarik ez dutenek aurkezpen ekitaldia streaming bidez jarraitzeko aukera ere izango dute. Era berean, bilera irekia izango denez, euren hurbileko pertsonaren bat ere etorri ahal izango da informazioa jaso eta beharrezko datuak hartzera. Hala

ere, aurrez izena emateko eskatu dute, www.berelanforoa@gmail.com helbide elektronikora idatziz. Bilera honetan, lehenengo urratsak emango dituzte eta elkar ezagutzeko eta ideiak partekatzeko baliagarria izango da. Espartza, UNED-eko zuzendariaren arabera, potentzial handiko proiektua izan daiteke Enbaxadore sarea ekimen berri hau.

Ildo bereko beste ekintzak

Xabier Zabaltza UNEDeko zuzendari eta foro honetako sorburuko kideak adierazitakoaren arabera, badaude beste ekimen antzeko batzuk Euskal Herrian. Hala nola, Bizkaian, Bizkaia: xede erakunde publikoak ere halako sare bat eramaten du aurrera atzerrian dauden Bizkaiko herritarrekin.

Gipuzkoan aldiz, Inazio Manuel Altuna Fundazioak, Aldundiaren laguntzarekin Altunin sariak banatzen ditu urtero. Sari honek atzerrian dauden ikasleek leku hartan ikusi eta bizitako esperientziak jaso eta Gipuzkoarentzako baliagarriak izan daitezkeen proiektu eta ideia onenak saritzen ditu urtez urte.

ESANAK

"Erbestean dauden herritarrekin sare sendoa sortu nahi dugu ekimen berri honekin"

JAIONE ISAZELAIA | ALKATEA

ARRASATE

Festa bikoiztu egin zen, Loteriako lehen saria irabazita

- ▶ 62.246 zenbakia, Gabonetako Loteriako lehen saria
- ▶ San Andres auzoan egokitu da zortearen zati bat
- ▶ Ia 180 milioi euro banatu ditu Arrasaten

IRATI GOITIA | ARRASATE

Poza, sinistu ezina, negarra... Horiek atzo Arrasateko San Andres auzoan ikusi eta bizi ahal izan genituen sentipenak, eta ez da gutxiagorako. Izan ere, bertan saldu zen Gabonetako Loteriaren sari nagusia. Zehazki, San Andres auzoko Araba etorbideko 2. administrazioan. Hala, aurtengo urte txarrari buelta eman dio sari potoloak.

62.246 zenbakia

62.246 zenbakiari egokitu zaio sari nagusia, eta dezimo bakoitzak 400.000 euro banatu ditu. Jose Mari Garai da San Andres auzoan dagoen 2. administrazioako arduraduna: "45 serie genituen eta ia dezimo guztiak saldu ditugu, hau da, 450 dezimo guztira". Beraz, ia 180 milioi euro banatu dituzte saritan. "Ozo pozik nago. Erabat ezkor geunden herrian, Fagorrek gertatu denaren ostean. Honek auzora baikortasuna ekarriko duela uste dut", zioen atzo goizean. Gaineratu zuen dezimo gehienak leihatilan saldu dituztela eta saria oso banatua izan dela. "Horrek pozten nau, batez ere. Partizioak ere egin ditugu zenbaki horrekin, oso zazituta saldu dugu. Hala,

hamar eurokoa erosi zutenek 160 mila euro jasoko dituzte eta dezimoa erosi zutenek 320 mila, ezarritako zerga kenduta". Izan ere, aurtun, lehenengo urtez, Ogasunak eramango du sariaren zati bat, zehazki %20a, 2.500 eurotik gorako sarietan.

Fagor Arrasaten zenbakia dute Auzotarrez gain, hainbat enpresatan ere erosi dute zenbaki hori. Fagor Arrasateko langileak izan dira sarituetako batzuk. "Urteak daramatzate loteria hemen erosten, beti zenbaki bera erosten dute -62.246- eta aurtun azkenean tokatu egin da!" Mekako gasolin-

degiko langileek ere zortea aldeko izan dute. Bertara ere joan ginen. "Hemen zazpi langile gaudete eta arduradunak. Guztiok hartu dugu. Hemen alboan dagoen Renault auto-kotzesionarioan ere zenbaki horretako dezimoak erosi dituzte".

Gabonetakoa, lehenengoz

San Andresko Araba etorbideko administrazioan lehenengoz banatu dute Gabonetako saria, baina aurretik ere sortu dute poza auzoan. 2012. urtean Loteria Nazionaleko lehen saria banatu zuten eta orain dela hilabete Bono-lotoko sari potoloa. "Gabonetakoa da loteria-saltzaile guztion ametsa eta aurtun errealitate bilakatu da", adierazi zigun Garaik. Ia 30 urte daramatzate loteria saltzen Garaik eta bere senideek. Administrazioa, baina, otsailean zabaldu zuten. Aurretik alboan duten estankotan saltzen zuten loteria.

DATUA
400.000
EURO
Horixe da dezimo bakoitzeko irabazitako diru kopurua. Horri, baina, ogasunak eramango duen %20a kendu behar zaio.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



San Andres auzoan dagoen 2. administrazioako arduradunak, saritutako zenbakia



Komunikabide ugari erakarri zituen albisteak. | I.G.




Baserritarrez jantzita dantzaz, saria banatu zuten administrazioan. | I.G.



Zenbaki saritua zuen emakumeari besarkada ematen. | I.G.



eskuetan dutela. | IRATI GOITIA



CARMEN CONEJO
SARITUA

"Bi dezimo ditugu, baina hamar euroko saria amagarrebarena da eta 30 eurokoa gurea. Hiru seme-alaba ditut eta lan gabe daude, beraz, poztasun handia da. Oraindik sinistu ezinda nago".



ALBERTO MONDRAGON
SARITUA

"Oso pozik nago. Etxean telebista ikusten nengoela enteratu naiz. Ilobari eta arrebari deitu diet eta ez didate sinetsi. Fagorrenaren ostean, hemen irten behar zuela sinetsita nengoan".



JOSE PEDROSA / DAVID GANBRA
SARITUAK

"Oraindik ezin dugu sinetsi, hitzik gabe gaude. Mezu bat bidali digute mugikorrera saritutako zenbakiaz eta konturatu gara gurea zela. Saltoka hasi gara, izugarritzko poza izan da".



NAIARA CONDE
SARITUA

"Madrilgo lagun batek deitu dit telefonoz sari nagusia Arrasaten tokatu dela esanez. Nuen zenbakiari begiratu, eta horixe! Pozez txoratzten saltoka hasi naiz. Ikaragarria izan da".



TANIA NAFARRATE
SARITUA

"Nire izebak hemen, leihatilan, erosi zuen eta familiako guztien artean banatu zuen: guri hamar euro, aitona-amonei bost eta beretzako beste bost".



JOSE ANTONIO HERNANDEZ
SARITUA

"Ez genuen tokatu zaigunik sinisten, anaiarengana etorri garenera arte. Orain, ospatu egin beharko dugu. Zorrik ordaintzeko erabiliko dugu".



JESUS HERNANDEZ / PAKI GIL
SARITUAK

"Bai, tokatu zaigu. Bost neba-arrebaren artean genuen dezimo bat. Auzoan ezagunak gara eta jendea tabernara etorri da gu zoriortzera. Gaur Santamasak dira eta lan egingo dugu, gero gauzak baretzean ospatuko dugu agian".



PELLO ARIZMENDIARRATEA
SARITUA

"Aurtengo Santamasak oso bereziak izan dira. Esan didate Fagor Arrasaten tokatu dela eta semeak ekarria zidan bertatik dezimo osoa. Lehenik zorrik kenduko ditugu eta gero ikusi behar gainerakoaz zer egin".



INAZIO AZKARRAGAIZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Oso pozik nago. Azken hiletan albiste txar ugari izan ditugu eta hau oso pozgarria da, badakigu-eta jendea gaizki pasatzen dabilela. Banatuta badago, hobe".



Saritutako dezimoa eskuetan duela, gizona. | I.G.



Zortedun zenbakiari kosk egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Xanpain zipritzinez blai bukatu zuten administraziara joandakoek. | JOSETXO ARANTZABAL



Jan eta edateko aprobetxatu zuten goiza herritarrek. | IMANOL GALLEGO



Udal ordezkariak barazki eta fruta lehiaketako irabazleekin. | AITZIBER ARANBURUZABALA



Txistorra goxoa izan zen eguneko beste protagonistetako bat. | JOSETXO ARANTZABAL



Txistuaren doinuari jarraituta, kalejira dotorean ibili ziren musikari eta dantzariak. | IMANOL GALLEGO

ARRASATE

'Joxe Mari' eta 'Mariano' txerriek dantzan jarri dituzte arrasatearrak

Orduak aurrera egin ahala berotzen joan zen giroa eta jende ugari ibili zen barazki eta artisau azoketan

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Urteroko zita izan zuten atzo arrasatearrek baserri giroarekin, Santamasekin. Zoriak behartuta inoizko bereziena izan da aurtengoa, Gabonetako Loteriaren sari nagusiaren zati bat herrian egokitu delako. Goizean bolo-bolo zebilen albistea herrian eta berbarako gai izan zen azokan.

Dena den, herritarrek ez ziren horretarako batu kalean, artisau,

barazki, hegazti eta ganadua ikusteko baizik. Kosta zen egunari hasiera ematea baina orduak aurrera egin ahala jendea eta salmentak animatzen joan ziren. *Joxe Mari* eta *Mariano* txerriek ere denen arreta eskuratu zuten, eurak izan direlako aurtengo Santamasetako berrikuntzetako bat: txerri bat beharrea bi jarri dituzte, pisu gutxiagokoak eta euskal arrazakoak.

Kaleko giroa behar bezala bizitzeko, urteroko taloaz gozatzeko aprobetxatu zuten arrasatearrek eta bateren batek 20 minutu inguruko ilara itxaron behar izan zuten.

Lehiaketako irabazleak

Eguerdi partean lehiaketako sari-banaketa egin zuten eta iaz ezinezkoa izan bazen ere, aurtan Aramaioiko Jose Lonbidek berres-

kuratu du barazki lehiaketako lehen saria. Dagoeneko zortzi bider irabazi du Lonbidek eta "ilusioa egiten du, urtean zehar egindako lanari esker-ona emateko modua da" adierazi zuten saria jaso berrikan.

Fruta lehiaketan Gabiriako Maria Etzezarretak irabazi zuten lehen saria. Herriko saltokirik onenen artean, aldiz, Rakel Perez de Arenaza izan zen lehena eta

honek ere saria, urte guztian egindako lanaren emaitza dela azpimarratu zuen.

Azokaz gain, askorako eman zuten Santamas egunak. Goizeko trikitilari, joaldun eta albokarien doinuei, txerri dantzak eman zien jarraipena. Eta ostean, herri bazkaria egin zuten Musakolako kiroldegian.

Kaleko giroaz zein jateko eta edatekoaz gozatzeko aukera paregabea dela erakutsi dute beste urte batez Santamasek. Oraindik biharamunarekin jaiki ezinik dabilzanek ere ziur ez diotela muzin egingo datorren urtean.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikoarekin.



MAIDER HEGIA
BAIONA

"Ondo doa eguna, eguraldi politarekin. Lehen behean egon gara ikusten, gero txistorra jaten eta orain artisauen azokara etorri gara. Momentuz ikusten ari gara baina gustatu zaizkit bitxi batzuk eta ikusiko dugu".



EDURNE ERAUSKIN
ARRASATE

"Ondo hasi da eguna, jendea badabil hemen inguruan eta gustura gaude. Bezeroek batez ere ikusi egiten dituzte pitxiak baina poltsikoetan ere badago mugimendua. Gainera, bihar eta etzi, Seber Altuben egongo gara".



VICKY ZABALZA
GASTEIZ

"Ogia ikusi eta itxura ona zuenez, erosi egin dut, eta aprobetxatuz pintxo bat jango dugu. Santamasak ezagutzera etorri gara ze entzunda genuen oso giro polita egoten zela, gainera eguraldi ederra egin du eta gustura gaude".



IGOR LETONA ETA HARITZ OJANGUREN
ARRASATE ETA ESKORIATZA

"Zerbezarekin gozotegi batera sartu eta 20.000 pastel ezberdin ikusten direnean moduan gertatzen da: denak daude gozoak, batzuk mota batekoak eta besteak besteak izanda ere. Garagarra eta lupuluaz egiten da eta horiekin jokatu daiteke nahi beste. Guk egiten duguna zerbeza naturala, etxekoa da. Euskal Herrian poliki poliki zerbezaren merkaturaz abaleginean ari gara eta gaurko helburua bete dugu: zerbeza naturalaren mundua ezagutzera ematea".



Garaiko produktuak izan ziren nagusi barazki ferian. | JOXE FELIZ DIAZ DE TUESTA



Txikienak gustura ibili ziren ponien gainean. | IMANOL GALLEGO

Bertsoa bertako garagardoari

Atzo juerga egin ondoren gaur berriro hementxe jai. Zer esango dut zerbeza hontaz?

Ederra dago, dago guai, burura ez du kolperik jo ta horrekin pozik nago, ai igual atzokoa konpondukou ta biharkoa ere bai.

Zigor Enbeita

SANTAMAS FERIAKO SARIAK

ERAKUSLEIHO LEHIA

1. Altuna lurrindegia
2. Resusta opari-denda
3. Traskilon txakur ile-apaindegia

BARAZKI LEHIAKETA

1. Jose Lonbide
2. Mariasun Iturbe

FRUTA LEHIAKETA

1. Maria Etxezarreta
2. Hutsik geratu da

HERRIKO ONENA

1. Raket Perez de Arenaza
2. Joxe Iturbe
3. Maria Arana

JARDUERA BERRIARI

1. Lur Pagoaga



Idiak, ganadu ferian. | JOSETXO ARANTZABAL



Adien guztietako jendearendako jaia da Santamas. | JOSETXO ARANTZABAL



JUAN MARI LOPEZ
OÑATI

"Feria ikusi eta eguna pasatzeko asmoz etorri gara, eguraldi ona dago-eta. Jende asko ikusten da ferian eta produktu asko daude. Orain puntuan egon naiz Santa Lutzia ferian eta han ere gustatzen zait ganadua ikustea".



AITOR ALKORTA
ARRASATE

"Arrasaten beti ibiltzen gara ondo. Sei urte daramatzat herrian erakusten nire lana eta oso plaza ona da. Goma-aparrezko txotxongiloak, makiladunak eta arropazkoak ekarri ditut. Aurten nahiko lasai daude salmentak".



BEGO LARRAÑAGA
ELORRIO

"Familia dugu eta urtero egiten dugu bazkaria. Gabonetako gauzatxo batzuk erostera eta giroa ikustera etorri gara. Eguraldi zoragarria dago eta euri barik primeran gabiltza. Gaurko eguna gustuko dut, jende asko ibili arren".



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



29.500 €

> Citroën Grand C4 Picasso EXCLUSIVE ETG 115

- 2013
- Diesela
- 1.385 Km
- Gris iluna

CHAPIME



San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroën Berlingo Combi 1.6HDI SX Multispace 110	12.950 €
2012 Diesela 21.400 Km Gorri argia	
• Citroën Berlingo Combi 1.6 HDI SEDUCTION 115	14.100 €
2013 Diesela 12.466 Km Bella Isla urdina	
• Citroën C2 1.4i Collection	5.200 €
2007 Gasolina berungabea 78.500 Km Gris argia	
• Citroën C3 1.4 HDi Business	8.950 €
2011 Diesela 38.350 Km Gris iluna	
• Citroën Elysée 1.2 VTi Exclusive 70	11.000 €
2013 Gasolina berungabea 750 Km Gris iluna	
• Citroën C3 Hdi COLLECTION 70	14.750 €
2013 Diesela 225 Km Aluminium grisa	
• Citroën C4 eHdi EXCLUSIVE 115	19.000 €
2013 Diesela 800 Km Zuri nakaratua	
• Peugeot Partner Tepee 1.6HDI Access	13.400 €
2012 Diesela 65 Km Zuria	
• Ford FT Tourneo 200 S Connect 75	4.300 €
2005 Diesela 129.456 Km Zuria	

EDOZEIN MARKATAKO MANTENTZE-LANAK 69 €-tik AURRERA
(5 urte baino gehiagoko autoentzako baliagarria)

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko abenduko zozketetako irabazleak



Play Station 3a

Anuska Elorza Altuna (Arrasate)



Baserrisarea.com-ek emandako otarrak

Justina Iñarra Mazmela (Arrasate)

Maidier Perez Martinez (Eskoriatza)

Eusebio Errasti (Arrasate)

Claudio Isasmendi Arando (Aretxabaleta)



Arrikrutzerako sarrerak

J.M. Arrieta Armendariz (Eskoriatza)

Francisco Zubia Azkoaga (Arrasasate)

M.Angeles Padilla (Bergara)



Pamielak emandako liburu sortak

Karmelegirregabiria Agirre (Aretxabaleta)

Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)



Harreman dendako otarrak

Karmelegirregabiria Agirre (Arrasate)

Maritere Galdos (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko)

Harreman dendako otarrak Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuaren sarreran duen dendara.

Beste sariak. Saria jasotzeko zatoz, **urtarrilaren 7tik aurrera**, GOIENAREN Aretxabaletako bulegora. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05. Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00. Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ



Smartfull

Nire mugikorra azkenetan dudala, hurrengoa, bigarren eskuko Nokia simple horietako bat erosteko asmoa nuen...

Uste dut Olentzerok, musu truk ematen omen diren smartphone horietako ugari banatzen jarraitu beharko lukeela...

Hala ere, posible da Milar Elkoroko mauketan erositako teledista piztu eta Gran Wyomingen ustelkeria komerierkin sututa...

Niri behintzat ospakizun hauetan etxean isilik eta zintzo egotea komeni zait, bestela amak Gabon Gauean afaltzeko Dia berri horretako kroketak jarriko dizkidala...

Zertan ari dira bien bitartean munduko gaitz guztien erantzule diren agintari horiek? Udaletxea bestalde, birziklatzeko poste zatar horietan dirua gastatzen ari da...

Eta zer esan Eusko Jaurlaritzako kideen inguruan... horiek bai dutela etorkizuneko ikuspegia! bai! laster tren zoragarri horretan muntatuta ordu erdi azkarrago helduko gara Madrilerara...

"Zintzo egotea komeni zait, bestela Diako kroketak jarriko dizkit amak"

Gabonetan kaleak eta bertoko merkataritza piztu eta sustatzeko Udalak erdigunean musika jarri du

Abenduaren 6tik euskal musikaz girotuta dira Arrasateko erdiguneko kaleak. Udalaren iniziatiba izan da, Gabonetan kale eta bertoko merkataritzari bizitasuna emateko.

Martxan da euskarazko Palindromoan 4. lehiaketa

IMANOL GALLEGO | ARRASATE Otsailaren 15a bitartean, laugarren urtez, Euskal Herriko Palindromo onena sortzeko gonbitea luzatu dute Arrasateko AED elkartetik.

Aurten ere Euskal Herriko eta Arrasateko palindromo onenak sarituko ditu elkarteak. Euskal Herriko palindromo onenarentzat, Debako Txindurri-Iturri nekazal turismo/sagardotegiak oparitutako bi lagunentzako sagardo afaria, logela eta gosaria.

Otsailaren 15a izango da palindromoak bidaltzeko azken eguna. Lanak epaitzerako orduan palindromoaren balio literario eta artistikoa, luzera nahiz aberastasun semantikoa hartuko dira kontuan.

Lanak mezu elektronikoki bidali behar dira AED elkartera, aed@aedelkarrea.com helbidera. Dokumentu bi igorri behar dira mezuaren barruan: batean, palindromoa aurkeztuko da, ezizen batekin; bestean, erabilitako ezizen bera eta egilearen datuak.

Usadio zaharra

Kroniken arabera, Ebaristo Bustintza 'Kiriño' idazleak antolatu zuen 1923an euskarazko palindromoan lehenengo lehiaketa Ezukadi egunkarian. Duela hiru urte, AED elkarteak haren lekukoa hartu eta ekimena gaurkotu zuen, hizkuntza lantzeko aukera polita eskaintzen delakoan.

Aitzakia gutxi, beraz, hizkuntzarekin jolasteari uko egiteko.



Herri Eskolako ikasleak kantari. | ANE ETXEBERRIA

Negar eta irri artean Gabon abestiak nagusi, Herri Eskolan

Gabon kantak izan ziren protagonista egubakoitzean, Herri Eskolako hiru eraikinetan

Irria, negarra eta urduritasuna izan ziren nagusi egubakoitzean Herri Eskolako neska-mutilengan. Bedoñabeko haurrak behintzat hala sentitu ziren egubakoitzean

gurasoen aurrera abestera atera aurretik. Baina hala ere, beldurrei aurre egin eta txukun txukun abestu zituzten hainbat abesti, besteak beste, Olentzero, Hator hator eta Gabonak gabon. Hau-

rrak poz pozik amaitu zuten ekitaldia, baita gurasoek ere, irribarre artean agurtzen baitzituzten etxeko txikiak.

Herrira zabaltzea helburu

Gabonak tarteko eta hiruhilekoari agur esateko ekitaldia ospatu zuten, beraz, Herri Eskolako eraikin guztietan. Denera 800 ikasle baino gehiago atera ziren Olentzerori abestu eta herri osoari Gabon Zoriontsuak opatzeko.

Urtero antolatzen duten ekitaldi honek, herritarrena hurbildu, herrira zabaldu eta gurasoak eskolara gerturatzeko balio duela adierazi zuten Bedoñabeko Herri Eskolako zuzendariak.

Hurrengo ekitaldi borobila inauterietan izango da.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



Atxaga: "Ez dut sinesten inork erregelarik jar dezakeenik"

Obabakoak publikatu barri, Bernardo Atxaga Mondrauen egon zan berbaldira egittin, eta entrebistie egin eutzien Press-ekuek.

Bestiek beste, Euskaltzaindiaren gainien egin euen berba: "Ez zait batere gustatzen gramatika. Ingalaterran ez dago Euskaltzaindiarik eta bakoitzak nahi duen bezala idazten eta pronuntziatzen du".

Bere ezizena nundik datorren be kontau euen, eta Kornelio Atxaga izen biherko leukela esplikeu!

Gas naturala herrixen

Aspaldi-aspaldiko kontue dala emuten dauen arren, orduen hasi zien herrixen gas naturala sartzen. Orri biko reportaje baten, haren bentajak eta desbentajak azaldu zittuen, eta baitte gas-sarie etxebizitzekin lotziek eukiko euen kostue be: 7.746 pezeta. Hiru urtien herri osuen jartie zan asmue, epe bitten banatute.

Tailerrak, jolas parkea eta uretako jolasak umeendako Gabonetan

Olentzero eta Mari Domingi 11:00etan irtengo dira bihar eskola-umeekin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Olentzero eta Mari Domingi irrikan daude herrira etortzeko eta hutsik egin gabe, bihar, martitzena, mendian duten etxea laga eta gurera etorriko dira goizean goizetik. Hain zuzen, hirugarren urtez, San Martin Herri Eskola, Aranzadi Ikastola eta Mariaren Lagundia Ikastolako guraso elkar-teen eta Udalak antolatuta hiru ikastetxeotako neska-mutikoekin batera kantuan ibiliko dira. 11:30ean abiatuko dira Fraisko-zuri plazatik eta San Martin plazan amaituko dute kalejira, eta nola ez, han hitz batzuk egingo dizkiete Olentzerok eta Mari Domingik neska-mutikoei.

Eguerdian atsedendia egin eta gero, arratsaldean kantu kalejira egingo dute berriz, herriko abesbatzek lagunduta. 19:00etan irtengo dira Udal biltegitik eta herrian barrena kantuan ibili eta gero, udaletxeko balkoira igoko dira eta berriz zuzenduko zaizkie plazan batutako neska-mutiko eta guraso guztiei. Horren ondoren, Udalak atarian euredako egokitutako txokoa umeen gutunak batuko dituzte eta baita musuak banatu ere.

Umeendako eskaintza zabala

Neska-mutikoendako opor egunak direla kontuan izanda, euren gaitasunak pentsatutako zenbait ekintza antolatu ditu Udalak.



Olentzero eta Mari Domingi iaz udaletxeko balkoian. | MONIKA BELASTEGI

Abenduaren 26an, 27an eta 28an, 3 urtetik gorako umeendako tailerrak egongo dira Aranzadi ikastolako gimnasioan,

dohain. Eskulanak eta esperimentuak egiteko aukera izango dute joaten diren gaztetxoek eta baita ipuinak entzutekoa ere.

Horrekin batera, Gabonetako jolas-parkea ere egongo da urtarrilaren 2an, 3an eta 4an. Aurten gainera, bi gune bereizi egongo

dira umeen adinaren arabera. 8 urtera arteko umeendako gunea Fraisko-zuri Udal pilotalekuan egokituko dute eta bertan zenbait jolas, puzgarriak eta ludoteka izango dituzte, besteak beste. Bigarren gunea, 8 eta 12 urte arteko gaztetxoendako izango da eta Aranzadi Ikastolako gimnasioan egokituko dute. Hain zuzen, adin horretara egokitutako jolas eta aktibitateak egongo dira: zezen mekanikoa, Wii-a eta billarra, esaterako. Bietan ala bietan 3 euro dira eguneko sarrera eta hiru egunetarako bonoak, berriz, 7 euro balioko ditu.

Agorrosin Ekintza Gunean ere jolas egiteko aukera izango dute gaztetxoek urtarrilaren 2an eta 3an. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara familia guztiarendako ur jolasak egongo dira igerilekuan.

Errege Magoak

Errege Magoek ere ez dute hutsik egingo. Urtarrilaren 5ean, ohi bezala, Bizar Zurik neska-mutikoen gutunak jasoko ditu udaletxean 17:00etan hasita eta Errege Magoak, berriz, 19:00etan iritsiko dira. Udal biltegitik abiatuko da kabalgata eta herrian barrena ibili eta gero, San Martin plazan amaituko da eta hiru erregeek udaletxeko balkoitik agurtuko dituzte umetxo guztiak.

Kabalgatari dagokionez, aurreko urteetan baino txikiagoa izango da parte-hartzaile kopurua, Udaletik aurreratu dutenez: "Real-Athletic derbia egun berean jokatu da eta normalean 100 bat lagunek parte hartzen badute kabalgatan, aurtengoan 60 bat egongo dira. DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleengana jotzen dugu kabalgatarako, baina aurten asko derbira joango dira. 2. mailako ikasleengana jo behar izan dugu aurten".

Xabalote gaztelekuan ekintza ugari egongo dira Gabonetan

Lau egunez bakarrik itxiko dute: hilaren 24an, 25ean eta 31n, eta urtarrilaren 1ean

M.B. | BERGARA

Xabalote gaztelekuan ekintza ugari gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek Gabonetako oporraldian. Abenduaren 23an hasi eta urtarrilaren 4ra arte era askotako ekintzak egiteko aukera izango dute. Gainera, epealdi horretan lau egunez baino ez da egongo itxita: abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean.

Gaur, hilak 23, Wii-arekin aritzeko aukera izango dute bertaratan diren gazteek; hilaren 26an, patata tortilla egiten ikasiko dute; 27an, futbito txapelketa jokatu dute Agorrosinaren goizez; hilaren 28an, Euskal Selektzioaren partidua ikustera joango dira; 29an, hockey partidua jokatu dute; eta hilaren 30ean, berriz, urteari amaiera emateko azken festa egingo dute.



Zenbait gazte Xabaloten, futbollean jokatzen. | GOIENA

Urte berriari gehiago

Urtarrilaren 2an jolas parke alternatiboa egingo dute; 3an, Bilboko Lasergunera irteera; eta 4an, berriz, makillaje tailerra egongo

da interesa duten gazte guztizendako.

Xabaloteko ekintzetan parte hartzeko izenematea gaztelekuan bertan egin behar da.

NIRE USTEZ

JUSTINA
ELEXPURU



Oinarrizko ikasgaia ote?

Eskolari gauza gehiegi eskatzen zaio eta gauza asko ikutzen ditu, gehiegi nire ustez, sarritan bene-benetako helburuak zeintzuk diren nahasteraino.

Lau-bost bat ikasgai, eta ez gehiago, joko nituzke ezinbestekotzat: irakurri eta ulertzea eta irakurritakoa ahoz eta idatziz adierazteko abilezia eta oinarrizko kalkulu matematikoetan trebezia –batu, kendu, zatitu...– eta hori dena, jakinminean eta errespetoan oinarrituta.

Hauek inozoak diruditen arren, adibidez errespeto hitza bera, nire ustez, ordezkatu egin ohi da sarri tolerantzia hitz-gatik eta eskolaume eta gazte askok, eta ez hain gazteok ere,

toleratu (aguantatu) egiten ditugu errespetatu beharko liratekeen hainbat egoera, persona eta gauza. Zenbat dira, benetan, ingurugiroa errespetatzeko gai? edo norbere ikasketak, edo gurasoak? edo lagunak? edo ondasun publikoak?

Pentsatzen dut errespetoa familiako jarrerak imitatuz xurgatzen den zer bait dela, bakoitzak bere etxean txiki-txikitatik. Eta eskola, berriz, sendotzen eta baloratzen saiatzen dela. Saiatzen bakarrik, eskolarik ospetsuenak ere ezingo digulako zihurtatu etxean oinarritu ez den ezer.

Gizarte sanoagoa denon nahia denez, agian adosteko dauzkagu zeintzuk diren oinarrizko ikasgaiak.

"Gizarte sanoagoa denon nahia denez, oinarrizko ikasgaiak adosteko ditugu"

Urteko azken astean denetariko kirol jaialdiak izango dira herrian

- ▶ Hiruko saskibaloitxapelketarekin hasiko da kirol maratonia; eta futbola ere izango da
- ▶ Pilotari dagokionez, Gabon sariko finalak jokatuko dira hilaren 30ean Udal Pilotalekuan

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Kirolzaleak direnek izango dute zer egin Gabonetan; izan ere, denetariko kirol ekintzak izango dira herrian. Saskibaloia, futbola eta pilota protagonistak izango dira, eta, beraz, kirol horiek gustuko dituztenek badute zerekin disfrutatu abenduaren 26tik 31ra bitartean.

Gabonetako lehen betekada jaisteko saskibaloia izango da protagonista herrian; izan ere, hiruko saskibaloitxapelketa jokatuko da Udal Pilotalekuan. Azken urteetako ohiturari jarraiki, saskibaloitxapelketa jokatuko da nagusi eta goizez zein arratsaldean izango dira norgehiagokak. Goizeko saioak 10:00etatik aurrera izango dira eta arratsaldekoak 16:00etan hasita. Hiruko txapelketa hori bi egunean jokatuko da, 26an (eguna) eta 27an (egubakoitza).

Hurrengo bi egunetan, aldiz, 28an eta 29an, haur mailako neska-mutilen txanda izango da. Saskibaloian ere arituko dira gaztetxoak, baina, kasu horretan, Labegaraietan lehiatuko dira, 10:00etatik aurrera.

Futbolari dagokionez, Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa bigarren finalerdia eta finala jokatuko dira urte amaiera bezperan eta Gabon zahar egunean. Finalerdia 17:00etatik aurrera izango da Ipintzan eta Real Bergararen aurka lehiatuko da. Abenduaren 31n, aldiz, finala jokatuko da, 16:00etatik aurrera, Agorrosinen.



Pilota partidu bateko une bat. | GOIENA

Gabon sariko pilota finalak

Pilotari dagokionez, urteroko legez, Gabon sariko pilota finalak jokatuko dira abenduaren 30ean Udal Pilotalekuan. Partiduak 16:00etan hasiko dira eta hainbat mailatako pilotariak arituko dira txapeldu izan nahian.

100 bat pilotarik hartu dute parte aurtengo ligaxkan, 6 urte-tik hasi eta nagusien mailara arte. Benjamin mailan hiru talde izan dira (A, B eta C taldeak), kimu mailan bi (A eta B) eta haur mailan bakarria. Nesketan, eskuz ez, baina paletan aritu da talde bat. Kadeteen, gazteen eta nagusi mailetan ere, pilotari taldea izan da aurtan.

Horretaz gain, aurtan ere *Barru* jokoa ere egingo dela adie-



lako saskibaloitxapelketa. | GOIENA

razi du Reyes Azkoitia ardura-dunak, baina murrizketa batzuekin: "Aurtan, murrizketak direla eta haur eta kimu mailatakoek soilik jokatuko dute; beste mailatakoak ezabatu egin ditugu".

Ondorengo taulan daude ikusgai finalean lehiatuko diren pilotariak mailaz-maila.

FINALISTAK

BENJAMINAK C

Agirrebeña-Losada

BENJAMINAK B

Lazpiur-Larrañaga

BENJAMINAK A

Perez-Etxaniz

KIMUAK B

Zubizarreta-Penin

KIMUAK A

Mendizabal-Arriola

HAURRAK

Gartzia-Etxaniz

KADETEAK

Balardi-Zubizarreta

GAZTEAK

Aristi-Diez

NAGUSIAK

Muguruza-Iñarra

Bilboko kaleak itsaso bilakatzeko mahaia jarri dute



Tantaz tanta kanpaina aurrera eramateko mahaia. | ANE ETXEBERRIA

A.E | BERGARA

Datorren urtarrilaren 11n Bilboko kaleak tantaz tanta itsaso bilakatzeko asmoz martxan jarritako kanpainak bere lehen ekimena eraman zuen aurrera pasa den egunean. Izan ere, mahaia jarri zuten Irala kalean eta bertan herritarrek euren tanta bereganatzeko aukera izan zuten. Bihar eta egubakoitzean ere aukera egongo da tanta horiek bereganatu eta Bilbora eramateko. Ekimen potoloa, baina, hilaren 31n, Gabon zahar egunean ospatuko da eta egun horretan tanta-ren pegatina soinean eramateko

gonbidapena egin diete herritar guztiei. Horrez gain, haima bat ere jarriko dute kalean, nahi duen orok *Tantaz tanta* argazkian parte hartzeko.

Aurreko urteetan bezala, Bilbora joateko autobusen tanta gisako zerrendak jartzeko eskara ere egin dute ekimeneko kideek herriko komertzioetan.

Kanpainaren helburua

Datorren urtarrilaren 11n Bilboko kaleak giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen aldeko itsaso bilakatzeko lagundu nahi duten Bergarako tantatxoak batzeko helburua dute herrian antolatutako ekimenek. Halaber, erakunde, sindikatu, alderdi eta beste hainbat eragileri irekita dagoen kanpaina izan baino gehiago, pertsona orori, herritar guztiei zabalik dagoen ekimena da.

OHARRAK

GURE ESKU DAGO

Bergarako *Gure esku dago* ekimenak antolatuta, datorren urtarrilaren 3an *Gazta Zati bat* dokumentala izango da ikusgai Zabalotegi aretoan. 19:00etan hasiko da saioa.

TOBERA IKUSTEKO SARRERAK SALGAI

Bailarako hainbat denda eta tabernatan toberarako sarrerak erosteko aukera dago oraindik ere. Bergaran, Pol-Pol tabernan, Lazkano zapata-dendan eta kultura etxean lortu ahal dira. Oñatin, aldiz, Txokolateixan. Eta Arrasaten, Ttukunen. Tobera antzerki satirikoa abenduaren 28an izango da Udal Pilotalekuan, 20:00tan. Sarrera 8 euro da.



Abenduaren 19ko osoko bilkurako udalbatza. | OIHANA ELORTZA

Ia 17 milioiko aurrekontua izango du Oñatik 2014an

Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin onartu zuten hilaren 19an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

16.963.899 euroko aurrekontua izango du Oñatiko Udalak datorren urtean, aurten baino %3,20 handiagoa. Eguenean egindako osoko bilkuran onartu zuten udalbatzak, Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin. "Aurrekontu egonkorra da, sarrera eta gastu arrunten oreka mantendu da. Proiektuak aurrera ateratzeko moduan dago Udala", adierazi zuen Mikel Biain alkateak osoko bilkura bukatu zenean.

Lau ardatz nagusian banatu dute aurrekontua: pertsona, ama lurra, kultura eta askatasuna oinarri dutenak, hain zuzen ere, eta horien barruan ekintza konkretuak zehazten dira. Pertsonak lehenesteko arloan, esaterako, enpleguaren sustapena izango da 2014ko aurrekontuen zutabeetako bat. Horrela, langabetuen asanblada bat antolatzea bultzatuko da. Bestalde, esfortzu berezia

gingo dute herriko merkataritza txikiaren defentsa. Adibidez, moneta sozialaren proiektua jarriko dute martxan udal langileen artean eta Debagoieneko merkataritza bonoak ere kaleratuko dituzte.

Ama Lurra defendatzeko arloan, mugikortasun plana izango da ardatza. 200.000 euro gorde dituzte horretarako. Lanbusek idungo da eta Aldundiaren mugikortasun planarekin bat egingo da. Bestalde, Eskolabus sortuko da, ikastetxeen mugikortasun plan bateratua.

Jeltzaleek kontrako botoa

Kultura sustatzen duen jendar-tearen barruan, kultur sustapena eta eltzia ekimena izango dira garatuko diren bi proiektu. Bestalde 36.000 euro aurreikusten dira aisialdi hezitzaileko ekintzak aurrera eramateko. Askatasunaren arloan nagusi programa eta

gazte ekintzen planen lehen zirriborroak dira lehenetsiko dituzten batzuk.

Jeltzaleak kontrako botoa eman zuten. Proiektu asko lehenetik datozela baina zehaztapenak falta direla esan zuen Lourdes Idoiak: "Dozena bat proposamen egin ditugu eta erdiak ere ez dira onartu. Beste batzuen aldaketa azken egunetan jaso ditugu". Idoiak esan zuen alternatibarik ez dutela jarri hainbat proiektutan, Lanbusean, esaterako, auzotako oinezkoen ohiko pasealekuen hobekuntza ere landuko luketela. Gobernuaren planifikazio eza ere aipatu zuen Idoiak, esaterako irisgarritasun planetan. Hondakinen gaiari lotuta, tasak ez igotzea ere ez dute egoki ikusten, "horrek defizita dakarrelako".

Bestalde, Gabonak ondo pasatzeko opa zien udalbatzak herritar denei, eta baita herrian egongo ezin dutenei ere.

Aurten ere helduko da Olentzero Oñatira

Erregeak, ur jolasak eta filmak ere izango dituzte ume eta gaztetxoek Gabon oporretan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatira ere helduko da bihar, abenduak 24, Olentzero. Ohitura duen moduan, Otadui zuhaiztitik abiatuko da eta Foruen plazan egongo da gero, herritarren eskaerak, gurariak, eskutitzak edo muxuak jasotzeko. Aurten, laguntzailea izango du: Mari Domingi.

Betiko moduan, 17:00etan abiatuko da Olentzero Otadui zuhaiztitik karroza gainean eta aurten Mari Domingi izango du alboan. Herritar talde batek

hartu du aurten Olentzerori harrera egiteko ardura, eta euren ideia izan da Mari Domingi ere gonbidatzea. Karroza ere eurek prestatuko dute.

Urtarrilaren 5ean, berriz, hiru erregeak udaletxeko osoko bilkuren aretoan egongo dira umeei harrera egiten.

Bestalde, ume zein gaztetxoendako ur jolasak ere izango dira aurtengo Gabonetan igerilekuan. Urtarrilaren 2an eta 3an izango dira. Euredako filmak ere emango dituzte.

Lin Ton Taun talde ezagunak gaztelekuan joko du datorren zapatuan, Inuzente Egunean

Lin Ton Taun taldeak kontzertua egingo du zapatuan, hilak 28, 22:30ean, gaztelekuan. Zestoan sortutako taldea da Lin Ton Taun eta arrakasta lortu zuen 1990eko hamarkadan. 2000. urtean bi kidek taldea utzi zuten eta kide berriekin beste era bateko musika egiten hasi zen taldea. Ez zuen, baina, askorik iraun proiektu hark. Aurten, taldeko lehen partaideak elkartu eta kontzertuak eskaintzen hasi dira. Lizargarate Trikitezale Elkarteak gonbidatuta datoz Oñatira. Sarrera bost euro izango da.

'San Silbestre. 13 ixa 14' herri lasterketa egingo dute urteko azken egunean herriko kaleetan zehar

Urtero legez, aurten ere izango da herri lasterketa urteko azken egunean, abenduaren 31n. *San Silbestre, 13 ixa 14* lasterketa zazpi kilometrokoa izango da eta lagun giroan egiteko helburua izango du, beste behin. Gaztetxoek lasterketa 16:00etan hasiko da eta helduena, 16:30ean. Izena egunean bertan eman behar da gaztelekuan, 16:00ak aurretik. Hiru euro ordaindu behar da izen-ematea.

NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA



ahantzi dugula? Guztiek egiten dute irribarre, bai, baina mozturro bat besterik ez da, ezarrita dagoen bidea jarraitzea soilik dugu xede.

Zugan sinesteari utzi diote, zuk eta zure astoek izar ederrerenetik jaisten zenuen dirdira eta ilusioan sinesteari utzi diote. Guztia diruaren arabera mugitzen da, gu garen txotxongiloen harien antzera. Jada, ez zara *Olentzero* orain *Negozio* deitzen omen dizute.

Baina lasai, ni bezalako arima tentelak badira oraindik, zoriontsu izateko sortzen zenuen estasi egoera horretara itzultzeko beharra duen horietakoa. Egin nazazu berriz haur, eta asko eskatzerik ez bada, eraman ezazu urrun diru madarikatua, berekoikeria eta hipokresia; edo eraman nazazu ni, zure fantasia mundura, ene hariak askatuz eta txotxongilo izateari utziz.

Deitu iezaiozue umekeria, nostalgia, zorakeria, eskizofrenia, baina gaur bizia emango nuke zugar sinestegatik.

Olentzero, hor zaude?

Zein ederra zen, urtero, ene haur bihotz inuzentea kilimaz laztantzea. Tamalez, haur nintzeneko garaian geratu zen Olentzero. Orain, badakit zein den egia. Ilusioa diruz erosi ezin zitekeela uste nuen arren, hura, diruz erosten zen eta diruz erosten da.

Gaur, sinistu nahirik nabil zirrara hura itzul daitekeela, Olentzero oraindik hor dagoela. Hor zaude, ezta?

Aspaldian ez dizut idatzi. Ziplo erori nintzen lurrera, eta hor ibili naiz, arrastaka, magia arrastoak bilatu nahirik nazkagarri bihurtzen ari den mundu honetan. Ba al dakizu hemen behean jada zoriontsu izatea

Ganbara Txikiren hamar urteak iruditan

Ganbara Txiki 10. urteurrena ospatzen ari da eta urte hauen errepaso egiten duen erakusketa jarri dute kultura etxeko erakusketa gelan. Abesbatza horrek bere lehen hamar urteetan egindako kontzertuen argazkiak, bidaien kronikak, emanaldietako bideoak, artikulak... batzen ditu. Hilaren 31ra arte dago zabalik.



MIREIA BIKUNA

ESKORIATZA

Olentzero, Gabon parkea eta gospela daude aurten

Askotariko ekintzak daude gertatuta bihartik urtarrilaren 5era bitarterako; berrikuntzak badaude

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ekintzaz beteta datoz Gabonak. Bihar bertan hasiko dira horiek: goizean, 11:00etan, umeek marrazki tailerra izango dute plazan; eta eguerdian, Gabon kantaldiaz eta trikitalarien kalejiraz gain, Olentzeroren laguntzaileak eskutitzak jasotzen ibiliko dira. Arratsaldean, ostera, Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira Apotzagatik. Urteroko ibilaldia egingo dute: Intxaurtxueta, Gaztañadi, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta plaza. Gabon egunean baserritarrez jantzita joateko deia egin dute.

Hilaren 26tik 29ra umeak izango dira protagonista. Egunean eta domekan puzgarriak izango dituzte igerilekuan; adinaren arabera antolatu dira txandak. Egubakoitzean eta zapatuan, ostera, urteroko jarduerak izango dituzte kantxan. Udaletik jakinarazi dute igerilekurako sarrerak hiru euro balio duela; kantxakoak, bost euro; eta lau egunetako bonoak, 12 euro.

Bestalde, gospel gustuko dutenek hitzordua dute aurten; Gospel Alba taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 19an, 19:00etan, unibertsitatean. Debalde da horretarako sarrera. Bestetik,

Silbestradie ere egongo da Gabon Zahar egunean. Goizean umeen txanda da, eta arratsaldean, helduena. 17:30ean, 5,5 kilometroko ibilbidea egiteari ekingo diote atletek herriko kaleetan, eta azken zatian, Manuel Muñoz lasterketa ere izango dute aurten.

Urte berriarekin batera, urtarrilaren 2an, ipuin kontaketa dute ume guztiek ludotekan, 17:30ean; eta 3an, sukaldaritza tailerra erretiratuen sukaldean. Eta amaitzeko, urtarrilaren 5ean, Errege kabalgata hasiko da 18:30ean. Kiroldegian hasi eta Intxaurtxueta, Gaztañadi, Olazar, Dorleta eta Arana bisitatu ostean, plazan amaituko dute ibilaldia. Bukatutakoan, eskutitzak jasoko dituzte.

Gaztelekuan ere denetarik

Bestalde, Gaztelekuan ere egitarau zabalago gertatu dute. Egubakoitzean, Hontza Extrem abentura parkea egun pasa joango dira gazteak; zapatuan, Euskal Selektzioaren festa dute, 19:30ean, gaztelekuan; eta domekan, izotz pistan emango dute eguna. Abenduaren 30ean, Gaba Elegancia izango dute 19:00etan; eta urtarrilaren 4an, kontzertuarekin emango diote hasiera urteari.

AGENDA, EGUNEZ EGUN

BIHAR, MARTITZENA

12:00 Umeen Gabon kantaldia, plazan. Bitartean, Olentzeroren laguntzaileak eskutitzak jasoko dituzte.

18:00 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria.

ETZI, HILAK 25

23:00 Skovers taldearen kontzertua Inkernun.

HILAREN 26TIK 28RA

11:00-20:00 Gabonetako parkea kiroldegian.

ABENDUAK 27

19:00 Joseba Iñurrategi omenaldia pilotalekuan.

ABENDUAK 29

19:00 Gospel kontzertua unibertsitatean.

ABENDUAK 31

12:00 Haurren Silbestradie.

17:30 Helduen Silbestradie.

URTARRILAK 1

01:00 Presoen aldeko brindisa plazan.

URTARRILAK 2

17:30 Umeendako sukaldaritza tailerra.

URTARRILAK 5

18:30 Errege kabalgata.



Lanean ibili dira azken asteotan erdialdean. | MIRIAN BITERI

Martxorako irekiko da erdialdea oinezkoendako

M.B. | ESKORIATZA

Egubakoitzea ezkerre zabalik dago ostera Bolibarrera joateko biribilgunearen eta Azkoaga Enea hotelaren arteko zatia. Errepidea txukundu dute, baina lanak ez dira amaitu: zati hori norabide bakarrekoa izango da oinezkoendako mugatzen denean, eta, hortaz, errepidea estutu eta espaloia zabalduko dute hiri-altzariek.

Horren harira, Beñat Herce alkateak nabarmendu gura izan du Olazar eta Arbiñoste inguruak egokitzeko lanak amaitu arte erdialdea ez dela ibilgailuendako mugatuko. Hain justu, Olazarren, besteak beste, oinezkoendako zubia jarriko da Telefonicaren etxe aldamenean; eta Arbiñosten, garbileku ondoan, egurrezko beste zubia jartzearekin batera, ingurunea asfaltatuko da. Horrez gain, Arbiñoste eta Aranburuzabala kaleko bidegurutzea zabaldu egingo

dela jakinarazi du alkateak, bistaratzea hobetze aldera. Martxo hasierarako gura dute erdigunea oinezkoendako izatea honako ordutegian: astegunetan, 16:00etatik 21:00etara; eta asteburuetan, zapatuko 13:00etatik domekako 21:00etara bitartean.

Hegoaldea ere asfaltatu

Horrekin batera, Herce azaldu du herriko erdiguneko eta iparraldeko errepide zatia asfaltatzeaz gain, hegoaldekoa ere asfaltatuko dela. Hain zuzen, Aranburuzabala kalea eta Dorleta eta Olazar arteko pasabidea. Urtarril erdialderako egongo dira lan horiek amaituta.

Santa Mariñeko aparkalekua

Data berean, Santa Mariñeko aparkalekua zabalduko dute. Orain dela aste bi hasi zituzten egokitzapen lanak, eta horiek amaitzean, 80 aparkaleku gehiago izango ditu herriak.



Silbestradien aurkezpena egin dute aurten. | JAGOBA DOMINGO

NIRE USTEZ

MAIDER OTAMENDI



Aurrekontuen proiektuak

Jakin badakigu gobernu guztiak egun hauetan ari direla beraien aurrekontuak onartzen. Ez da ariketa erreza izaten, batez ere gutxiengoan dauden gobernuentzat, baina hor ikusten da talde politiko ezberdinen jarrera eta

adostasunetara iritsi ahal izateko borondatea.

Modu orokor batean, herritar gehienok ezagutzen dugu dirua non eta zertan gastatzen den: gizarte politikan, enplegu eta garapenerako proiektuetan, bide azpiegiturretan, kulturean, etab... Gobernu bakoitzak bere lehen-tasunen arabera banatzen ditu dauzkan baliabideak. Baina bal dakigu aurrekontu hauek aurrera eraman ahal izateko baliabideak nondik datozen? 0

Diru sarrera gehienak tributu bidez lortzen dira, hau da, tasetatik (erabiltzen diren zerbitzu publiko edo jarduerak bat

jasotzeagatik ordaintzen direnak. Esaterako, zabor bilketagatik edo kiroldegia erabiltzeagatik) eta zergetatik (zuzenak, pertsonak edo enpresak zuzenean zergapetzen dituztenak edo zeharkakoak, pertsonen ondasun edo zerbitzuen kontsumoa zergapetzen dituztenak).

Ordaintzen duguna zertarako den jakiteak, asko laguntzen du gizartearekiko dugun konpromisoa betetzeko, baina ordainketa behar hauek progresibotasunaren printzipioan oinarritu behar dira beti: gehien duenak gehiago ordaindu behar du! Gizarte justuagoa helburu.

ARETXABALETAKO

Ordutegi berezia izango dute zerbitzu publikoek

M.B. | ARETXABALETAKO

Gabonetan ordutegi berezia izango dute Aretxabaleko zerbitzu publikoek. Udaletxean 08:00etatik 14:00etara egingo dute lan gaurtik urtarrilaren 7ra bitartean; jaiegunetan, gainera, itxita egongo dira zerbitzuak. Arkupe, hilaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an izan ezik, gainerako egunetan irekita egongo da honako ordutegian: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:00etara bitartean.

Bestalde, liburutegiko egutegia eta ordutegia ez datoz bat Arkupekoarekin. Gaurtik eguaztentera arte itxita egongo da, eta baita hilaren 30etik urtarrilaren 1era eta Errege Egunean ere. Beste egunetan, goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara joan ahal izango dira erabiltzaileak liburutegira; zapatuetan izan ezik, goizez bakarrik egongo da eta zabalik.

Osasun etxeari dagokionez, 08:00etatik 17:00etan egongo dira lanean urtarrilaren 7ra arte, jaiegunetan izan ezik, itxita egongo da eta. Ibarra kirol etxean, azkenik, abenduaren 24an eta 31n, 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik; eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an, itxita. Gainerakoetan, ohiko ordutegia izango du.

Poxpolin Park

Bestalde, Gabonen bueltan, kirol jarduerak bereziak gertatu dituzte Ibarra kirol etxean. Egunean, hilak 26, Gabonetako Poxpolin Park izango da, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Hilaren 27an, ostera, uretako puzgarriak jarriko dituzte igerilekuan, goizeko ordutegian; eta abenduaren 30ean, areto bizikleta eta Xumba Master Class-a dago, debalde, abonatuendako zein bazkide ez direnendako; kasu horretan, izena eman behar da aurrez.



Iaz bertso eskolako eta abesbatzako kideak irten ziren eskean; irudian, kultura etxeko entseguetako bat. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Santa Ageda eskea berezia izateko, entseguak laster

Urtarrilaren 9tik aurrera eguenero batuko dira kultura etxean, otsailaren 1erako dena gertu egon dadin

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
2014an ere berezia izango da Santa Ageda eskea, herrikoia. Iaz lehen aldiz batu ziren Bizente Goikoetxea abesbatza eta bertso eskola ohitura zaharra berreskuratu eta festa indartzeko. Erantzunarekin "oso pozik" geratu ziren antolatzaileak, bertso eskolako Xabi Igoak gogoratzen duenez: "Oso harrera ona izan zuen deialdiak. 40 bat lagun

elkartu ginen, giro ederrean". Aurten, gainera, Trikitixa Eskolakoak gonbidatu dituzte eta beraz, herritar gehiago elkartzea espero dute.

Lau entsegu

Otsailaren 1ean, zapatua, irtengo dira eskean. Iaz jasotako diruaren erdia Caritasera bideratu zuten eta beste erdia, berriz, Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeari

eman zioten. Aurten bestelakoa da hasierako asmoa. Bildutako dirua hiru taldeen artean banatuko dute, diru horrekin herriarendako zerbait antolatzeko.

Oraindik otsailaren 1eko egitaraua ez dute zehaztu baina iragarri dute urtarrilean lau entsegu egiteko asmoa dutela. Urtarrilaren 9an, 16an, 23an eta 30ean egingo dituzte entseguak, kultura etxean (19:00).

ARAMAIO

Goi mailako bertsoak hilaren 27an, txapelkunaren presentzia eta guzti

J.B. | ARAMAIO
Gabonetako programazioaren barruan azken urteetan hutsik egin ez duen ekintza da bertso eskolak eta Udalak elkarlanean antolatzen duten bertso saioa. Bertso eskolako kideak irailean hasten dira saioan parte hartuko duten bertsolariak lotzen. Egu-bakoitzean, hilak 27, izango da aurtengoa, kultura etxean (19:30). Amets Arzallus txapelkunaren

presentziak berezia egingo du saioa; hendaierarekin batera Unai Iturriaga eta Xabier Silveira egongo dira. Herriko ordezkariak Paula Amilburuk osatuko du: "Puntako hiru bertsolariak gain, herriko bat gonbidatzen dugu beti", diote antolatzaileek. Gai jartzaile lanetan Manex Agirre eta Xabi Igoa arituko dira. Sarrera leihatilan bertan erosi ahalko da, bost eurotan.



Arzallus, BECEko finalean. | GARI

ANTZUOLA

Kantuan egingo diete ongi-etorria Olentzeron eta Mari Domingiri

San Josen egongo dira eta herritarrek Kanpo beltzetik deituko diete Sanjosepetik beharrean

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA
Gabonak ospatzen hasteko familia eta ingurukoekin batu aurretik Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria eman beharra dago eta Antzuolan bihar izango da horretarako aukera, 18:30etik aurrera.

Aurten, gainera, hainbat aldaketa izango dira euren etorreran:

Olentzero eta Mari Domingi San Josen egongo dira eta herritarrek zein txalapartari eta txistulariek Sanjosepetik beharrean, Kanpo beltzetik deituko diete adarra eta karakola jota. Bi pertsonaiak antortxadun lagunekin jaitsiko dira.

Idien gurdira igotzen direnean kalejira hasiko da eta bi geldialdi egingo dituzte: Lapatzetxeberrin

eta Kalebarrenen. Geldialdi bakoitzean *Horra Mari Domingi* eta *Olentzero begi gorri* abestuko zaie. Kalejira plazan amaituko da eta han egingo da ekitaldi nagusia. Euria egiten badu, berriz, eskolako patiora lekualdatuko dute amaierako ekitaldia.

Gabonetako menuen tailerra

Gabonekin lotuta, joan den astean garaiotarako menu osasungarri eta orekatuak prestatzeko tailerra eskaini zuen Amaia Diaz de Monasterioeguren nutrizionista oñatiarrak Olanan etxean. Horrekin amaitu ziren XV. Debagoieneko jardunaldi gastronomikoko jarduerak.

ELGETA

Olentzerok esan du 18:00 alderako iritsiko dela herriko plazara

Aurretik, gaztelekukoek egindako eskulan azoka, txokolate beroa eta Gabon kantak izango dira

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Azkenik, iritsi da eguna! Gaur, astelehena, jaitsiko da Olentzero Intxortatik Elgetara, eta herriko umeek 18:00 alderako espero dute herriko plazan. Aurretik, eta Olentzeroren etorrera girotzeko, gaztelekuko neska-mutikoen azoka egingo dute plazan, 17:00etan, eskuz egindako lanekin. Guraso elkar-teak, aurten ere, txokolate beroa banatuko du, eta Olentzero etorri aurretik Gabon kantak abestuko dituzte plazan. Biharamunean, kalez kale eskean ateratzekoak direndako entsegu polita izango da saio hori.

Iluntzean, Salvador kalean gora joango dira elgetarrak Jainaga soinu-jolearen musika-

rekin lagunduta; izan ere, ermitan behera etorriko da Olentzero. Elgetako neska-mutikoen gutunak jasotzera etorriko da ikazkina eta gozokiak banatuko ditu umeen artean.

Olentzeroren sekretua antzezlanarekin ere izango dute, aurten, Elgetan: abenduaren 26an izango da, 18:00etan, Espaloian. Sarrera bost euro da.

Umeen pilota txapelketa

Lehen partiduak atzo, domeka, jokatu zituzten, eta urtarrilaren 2ra bitartean 50 norgehiagoka jokatu dituzte Gabonetako pilota txapelketan izena eman duten 30 umeek. Finalak, aurten, urtarrilaren 5ean jokatu dituzte, 11:00etan hasita.



Olentzero, iaz, Salvador kalean behera. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Gabonetan, zerbitzu publikoen jardun berezia

Zerbitzu publikoen artean, gogoan izan Labidea denda itxi egingo dela abenduaren 31n

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Abenduko azkeneko egunean itxi eta urtarrilean zabalduko ditu atzera ere atek Labideak. Irekiera data zehaztu bari dago, izan ere, Labideako kudeatzaileak aldatu egin behar dute. Leintz Gatzagako Udalak zehaztutakoaren arabera, urtarrilaren 13a luke atek zabaltzeko epe muga. Baina kudeatzaile berriaren beharren arabera, data hori luzatu (edo laburtu) egin daiteke.

Medikua, Eskoriatzan

Gabonetan kontuan hartu beharreko beste zerbitzu publiko bat medikuarena da. Osakidetatik jakinarazitakoaren arabera, udan moduan, gaurtik (abenduaren 23) urtarrilaren 7ra arte, medikua behar duten gatzagarrek Eskoriatzako anbu-

latoriora jo beharko dute. Txanda hartzeko: 943 71 44 52.

Udala, zabalik

Gatzagako Udalari dagokionez, berriz, normal jardungo du, abenduko lau egunetan izan ezik: abenduaren 24an eta 25ean eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean. Hala, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita izango da. Aldiz, abenduaren 24an eta urtarrilaren 31n zabalik izango da, baina 13:00ak arte.

Auzoz auzo, kantuan

Bukatzeko, gogoan izan abenduaren 24an auzoz auzo aterako direla gaztetxoak Gurel elkartearen eskutik. Goizean abiatuko dira (09:30ean); eta eguerdian, berriz, erdigunean egingo dute kalejira.

ZATOZ GASTEIZA, EGUBERRIEN GOXOTASUNAZ GOZATZERA!

VITORIA
GASTEIZ
green capital



IZOTZ-PISTA ETA IZOTZ-TXIRRISTA FLORIDAKO JAIOTZA IKUSGARRIA MUSIKA KALEAN ETA HIRIKO DENDA ONENAK EROSKETAK EGITEKO HAUR TAILER LUDIKOAK ARGIZARI GAUA GAINERA, ABENDUAREN 21EAN ETA 23AN ETA URTARRILAREN 3AN ETA 4AN DENDAK EGUERDIETAN IREKITA EGONGO DIRA. PARKING ZERBITZUA IRADIER ARENAN DOAN



Zer da Gasteiz On?

Gasteizko hiriguneko dendek elkarre bat da. Denetarikoa denda -arropa, jostailuak...-, tabernak, jatetxeak, gure hiriaren erdialdean. Elkarrearen barruan ze negoziok dauden jakiteko, webgunean kontsultatu: www.gasteizon.com.

INFORMAZIO GUNEAK NON DAUDE INFORMAZIO GUNEAK?

Arka plaza
San Frantzisko kalea
Ricardo Buesa kalea

Gasteiz On-en erosteak oparia dakar

Gasteiz ONeko dendetan 20 euro baino gehiagoko erosketak eginda, eta Informazio Guneren baten tiketak aurkeztuta, opari hauetako bat jasoko duzu:

- Izotz-pistarako sarrerak
- Paketeria iraunkorra
- Kontsigna zerbitzua

ORDUTEGIA

12:00- 14:00 / 18:00 - 21:00
24an eta 31n, 20:00ak arte

Doan!

3 EUROKO BONUA PARKINGEAN, KUPOI HAU AURKEZTUTA

Kupoi hau eta zure aparkamendu-tiketa Informazio Guneren baten aurkeztuta, doan lortuko duzu hiru euroko bonu bat Amarikako, Katedraleko, Juan Aialako eta Europako parking publikoetan erabiltzeko.

Antolatzailea



Babeslea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

KIROLA



Iñigo Roldan, bizikleta aldatzen. | MIREIA BIKUÑA



Bizikleta sorbaldan hartuta. | J.A.



Bizikleta lokatzez beteta. | J. ARANTZABAL



Ziklistak salto egiten | ANDER MONEDERO



Jon Rivero bergararra ibilbideko bihurgune batea

ZIKLO-KROSA

Peña azkarrena Oñatin, eta Arregi elite mailako Gipuzkoako txapeldun

- Dena den, Aketza Peña izan zen azkarrena San Martingo proban
- Gipuzkoa mailako zortzi txapel banatu zituzten atzo Oñatin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Elite mailako lasterketan –atzo Oñatin jokaturako beste askotan moduan– lehenengo lekuan heldu zen txirrindularia eta Gipuzkoako txapelduna ez ziren pertsona bera izan. Maila nagusienean, Aketza Peña izan zen azkarrena, baina Asier Arregik jantzi zuen gipuzkoar onenaren txapela. Emakumeen artean, ordea, bi sariak ziklista berak eron zituen: Olatz Odriozolak.

Guztira, Gipuzkoa mailako zortzi txapel banatu zituzten.

Arregiren erorikoa

Elite mailakoek eta 23 urtez azpikoek batera egin zuten lasterketa eta, maila ezberdinetan korritu arren –Lastra 23 urtez azpikoa da, eta Peña eta Arregi elitekoak–, lehia estua izan zuten hirurek. 60 minutuko proba burutu behar zuten elitekoek eta 50ekoa 23

urtez azpikoek. Lehen itzulia zazpi minuturen bueltan egin zutela ikusita, epaileek erabaki zuten elitekoek zortzi itzuli egin behar zituztela eta 23 urtez azpikoek zazpi.

Lehen itzulitik aurreratu ziren Peña, Lastra eta Arregi. Lastra pasa zen lehena helmuga puntutik. Bigarren itzuliaren hasieran –San Martingo ermita parean– erorikoa izan zuen Arregi, eta beste bi txirrindulariak aurreratu egin ziren. "Erorikoa izan ostein, ezin izan ditut aurreko bi txirrindulariak harrapatu. Lasterketa irabazteko aukerak galdu ditut, baina Gipuzkoako azkarrena izan naiz", esan zigun Asier Arregik bukaeran.

Lastra eta Peña

Handik aurrera, Lastrak eta Peñak agindu zuten lasterketan. Lehia bizia izan zuten. Bazekiten huts

egiten zuena proba irabazteko lehiatik kanpo geratuko zela.

Euren arteko borroka itzela izan zen, baina atzetik zeuden gainerako txirrindulariek ere ikuskizun ederra eman zieten San Martinen batutakoei.

Bi zati oso nabarmen

Ibilbideak bi zati oso nabarmen zituen: San Martin zuhaitzian zehaztutakoa eta goiko zelaian zehaztutakoa. "Zuhaitzian barrena oso azkar ibili gara. Ibilbidea laua zen eta gustura ibili gara. Goiko zelaiko zatiak, aldiz, zailtasun handiagoa zuen. Teknikoagoa zen. Gainera, lokatz asko zegoen, eta horrek asko gogortu du ibilbide zati hori", esan ziguten bukaeran Arrikruz taldeko Julen Umerezek eta Ekaitz Txintxurretak. Biak ala biak oso pozik zeuden euren mailetan lortutako emaitzekin.

Markel Irizar sariak banatzen

Elite mailakoek eta 23 urtez azpikoek lasterketen aurretik, kade-te, gazte eta master mailakoak jokatu zituzten. Guztiak lasterketa ederrak izan ziren, batez ere, gazteen mailakoa. Patxi Aldanondok erakustaldia egin zuen: proba irabazi eta Gipuzkoako txapela jantzi zuen. Gazte mailako emakume onena Paula Lanz izan zen.

Kadete mailako proban, Jokin Alberdi (mutiletan) eta Alba Fernandez (nesketan) izan ziren azkarrenak. Aldiz, master mailako probetan onenak izan ziren Juan Jose Romero (master 30), Manuel Quintanilla (master 40) eta Jokin Mujika (master 50).

Probari bukaera eman zion sari banaketa ekitaldian, federazioko eta Udaleko ordezkariak, eta Markel Irizar txirrindulariak parte hartu zuten.

GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

ELITE MUTILAK

1. Asier Arregi

ELITE NESKAK

1. Olatz Odriozola

23 URTEZ AZPIKO MUTILAK

1. Alex Aranburu

MASTER 30

1. Eduardo Jimenez

MASTER 40

1. Xabier Mendiaraz

MASTER 50

1. Jokin Mujika

JUNIOR MUTILAK

1. Patxi Aldanondo

KADETE MUTILAK

1. Jokin Alberdi

26 | **ESKUBALOIA** | Bergarak Gure Auzunen menderatu zuen: 38-31



in, lokatz artean. | JOSETXO ARANTZABAL



Saritu guztien talde argazkia, antolatzaile, Udal ordezkari eta Markel Irizarrekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Elite mailako eta 23 urtez azpiko ziklistak. | JOSETXO ARANTZABAL



Bizikleta garbitzen. | MIREIA BIKUÑA

Aurtengo oparia

 **argia**

*harpidetza egizu
egiozu*

Orain **%50**eko beherapena

harpide berrientzat lehen urtean

hilean 6 € baino ez!

Eskaintza hau
2013ko abenduaren 31n
amaitzen da

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpide@argia.com | www.argia.com/harpidetza

OHOREZKO ERREGIONALA

Aukerak aprobetxatu ez eta berdindu egin zuen Antzuolak azken unean

Etxekoek protestatutako falta baten ondoren heldu zen aurkarien gola

EMAITZA

ANTZUOLA

1-1

HONDARRIBIA

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Sailkapenari begira, arerio zuzena jaso du asteburu honetan Antzuolak etxean. Azken emaitza ez zen partidua bigarren zatiak pentsarazten zuen bezain ona izan, banako berdinketarekin amaitu zen-eta norgehiagoka. Gainera, azken unean erabaki zen partidua, etxeko jokalariek

eta zaletuek asko protestatutako falta batean heldu zelako Hondarribiaren gola, partiduko azken segundoan.

Erasoan hasi zuten partidua antzularrek eta Hondarribiaren zelaian jokatu zuten lehen hoge minutu luzeetan. Bisitariak lekua hartu zuten pixkanaka baina jokaldi garbiegirik sortu gabe.

Etxekoak behin eta berriro heldu ziren Hondarribikoan atera eta Iosu Zubikarai urrunetik ere saiatu zen birritan.

Lehen zatia amaieran giroa berotu egin zen: epaileak adierazi ez zuen penalti bat eskatu zuten etxekoek eta Mikel Ibañeri txartel horia atera zioten falta baten ostean aurkariaren bila joateagatik.

FITXA TEKNIKOA

Antzuola: Ion Iturbe, Yosu Asensio, Markel Lete, Iñaki Agirre, Ander Arana, Aitor Godoy (Hasier Larrea, 91. min), Ibai Zabalo, Mikel Ibañeri, Oinatz Agirre, Iulen Aranbarri, Iosu Zubikarai.

Hondarribia: Josu Olascoaga, Haitz Amunarriz, Oier Arratibel, Martxel Almandoz, Jon Olaizola (Iñigo Fernandez (88. min), Iker Sarriegi, Imanol Kanpandegi (Iñigo Martinez, 58. min), Ion Olaetxea, Xabier Oliveri, Odei Gonzalez, Mikel Muguruza.

Beste: Giroa petraldu zen epailearekin.

Bigarren zatian are aukera garbiagoak izan zituen Antzuolak eta horietako batean egin zuen gola Zubikarai. Ezker hegaletik eraman zuen baloia Hondarribiaren arearaino eta gurutzatutako jaurtiketak sareen artean amaitu zuen.

Zutoinera joandako, ate aurrean huts egindako eta gehiegi loratutako baloia ere izan ziren bigarren zatian, baina Antzuolak ez zuen gol gehiagorik egin. Eta azken segundoan, etxekoek kontra adierazitako falta batek ordurako espero ez zen berdinketa ekarri zuen.

Geldialdia Gabonetan

Azken partidua amaiera gazi-gozoa goxatzeko aukera izango du Antzuolak Gabonetan, izan ere, geldialdia izango dute egunotan. Urte berrian Bergararen aurkako derbia izango dute zain.

Estreinatuta berri duen mailari eusteko erronkarekin hasi zuen liga Antzuolak eta espero zuena baino hobeto egokitu dela esan daiteke, lehen itzuliamaitzeko bi jardunaldiren faltan zarpigarrena baita sailkapenean. Pareko dabil bere hurrengo aurkaria ere.



Iosu Zubikarai baloia jaurtitzen lehen zatiko jokaldi batean; jaurtiketa kanpora joan zen. | IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAk eta Aloñak irabazi eta Bergarak galdu, oporren aurretik

Puntu garrantzitsuak lortu zituzten oñatiarrek eta aretxabaletarrek Irunen eta Donostian

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Gabonetako oporren aurreko jardunaldia oso positiboa izan zen UDArendako eta Aloñaren-dako. Biek ala biek, 0-1 irabazi zuten -Aretxabaletak Irunen eta oñatiarrek Donostian- eta sailkapenarendako garrantzitsuak diren puntuak lortu zituzten. Bergarak, aldiz, galdu egin zuen Getariakoren kontra (1-0).

Aitor Perezek penaltiz

UDAk puntuak behar zituen derrigorrez; sailkapeneko zulo-tik irteteko, eta taldearen autoestimua igotzeko behar-beharrezkoa zuen garaipena. Gorka Valleren taldeak ez zuen hutsik egin. Lehia serioa jokatu, Aitor Perezek penaltiz sartutako gola baliaitu zuen hiru puntuak lortzeko. "Partiduko lehen bost minutuetan izan ezik, guk menderatu dugu lehia, eta gol gehia-

go sartzeko aukerak izan ditugu. Lasaitasunerako puntuak dira", esan zigun.

"Sentsazio onak berriro"

Azken bi partidua galdu ostean, irabazi beharra zeukan Aloñak. Bada, oñatiarrek ez zuten hutsik egin eta Vasconia menderatu zuten Axier Ugarteren golarekin. "Lan handia egin behar izan dugu, baina emaitza ikusita, oso pozik gaude. Sentsazio onak berreskuratu ditugu", zioen Andoni Azkargortak.

Bergarak galdu

Bergarak, aldiz, ezin izan zuen punturik lortu Getariakoren kontra. 30. minuturako jokalarri bat gutxiagorekin geratu zen Baltzategik txartel gorria ikusi ostean, eta gol aukerak izan arren, ezin izan zuen punturik lortu.



ERREGIONAL PREFER.

"Urteko partidu txarrena jokatu dugu"

Berba horiek laburtu zuen Mondrako entrenatzaile Gotzon Urtzelaik zapatuko partidua. Arrasatearrek 0-2 galdu zuten Soralezaren kontra eta azken lau partiduetan hartutako bolada txarreakin jarraitzen dute. "Emaitza aldetik bolada txarra da, duda barik, baina taldea ondo ikusten dut: gogor lanean eta aurpegia ematen. Orain erakutsi behar dugu talde sendoa garela", esan zigun Urtzelaik. Mondrak gol bana jaso zuen zati bakoitzean, eta ez zuen aukerarik izan punturik lortzeko.

IMANOL SORIANO

PILOTA

Egia eta Garate arrasatearrak Gipuzkoako pilota txapeldun

22-14 menderatu zuten Oriá-Elizegi bikote zaldibiarra Uarkapeko finalean



Joseba Garate pilotari ematen, Egia eta Elizegi begira dituela. | IMANOL SORIANO



Josu Egia eta Joseba Garate arrasatearrak txapelekin. | MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Josu Egia eta Joseba Garate arrasatearrak Gipuzkoako txapeldunak dira. Arrasatearrek jantzi dute klubaren arteko txapelketako gazte mailako txapela: 22-14 hartu zuten mendean Gailurrerantz klubeko Oriá-Elizegi bikotea.

13. tantora arte...
Gazte mailako finalak bi zati oso narbarmen izan zituen: bat, Oriá-Elizegi bikotea (gerriko gorriarekin) 13. tantora heldu zen arte;

eta bestea, handik aurrera. Tanto hori izan zen kakoa. Horraino, Zaldibiko bikotea jaun eta jabe izan zen. Sakez lehen lau tantoak egin ostean, fin ibili ziren aurreko zein atzeko koadroetan. Pilotari arrasatearrak ezinean ibili ziren, jokoari jarraipena ezin eman; zaldibiarren sakea apurto orduko, eurena galtzen zuten. Hala moduz, sei tanto egin zituzten Egia eta Garatek.

Eta 13. tantotik aurrera
13. tantoaren ostean, arrasatearrek pilota aldatu, eta buelta eman zioten lehiari. Ikusgarria izan zen lehia nola aldatu zen. Etxeko bikotea 14-0ko partziala egiteko gai izan zen (20-13). "Berotu direnean, ikuskizun ederra eman dute", esan zigun bukaeran Ibai Bolinaga entrenatzaileak.

Arrasateko bikoteak lan ona egin zuen, baina azpimarragarria da Joseba Garate aurrelariak egindako erakustaldia.

Partiduaren zama bere gainean hartu, eta pilotakada ikusgarriak eman zituen: dejadak txokoa eta zabaleran eta pilotakada bortitzak atzeko lerroetara. Behin eta berriz moztu zituen Oriaren erremateak. Berak bakarrik eman zion buelta lehiari, harmailetan zeuden zaleen txalo zaparradak lagunduta. Azken tantoa egin aurretik, zaldibiarrek 14.ena egin zuten.

Seniorrak eta kadeteak
Aurretik jokaturako bi finaletan Beharzana (seniorretan, 22-4 irabaziz) eta Intxurre (kadete mailan, 22-16koarekin) izan ziren Gipuzkoako txapeldunak.

Goñi-Bolinaga bikotea nagusi Santamasetan

Gogotsu hurbildu ziren atzo ikusleak Uarkapeko pilotalekuan jokatu zen Santamasetako partidura, Goñiren ikuskizunaz gozatzeko asmoz. Goñi-Bolinaga bikoteak 22-10 irabazi zuen partidua Lasa-Zuazua bikotearen aurka. Norgehiagoka bizia eta polita izan zen; Goñi eta Zuazua aurrelariak jarri zioten gatza, eta pilota zaleek asko eskertu zuten.

Aurretik, Moron eta Garate, Arrasateko Pilota Eskolako gazteek jokatu zuten. Garatek 22-10 irabazi zuen; eta Moron ahalegindu bazen ere, Garatek partidua hasieratik kontrolpean izan zuen.



Zuazua pilota jotzeko prest. | JAGOBA DOMINGO

Carrefour

GORBEIA



2. alea -%70

1.000 produktu baino gehiago
%70 deskontuarekin 2.alean



INFORMAZIOA
INDIAREN DAGOEN LEDEAREN ARABERA, EZ DIEGU EDARI ALKOHOLIKORNIK SALTZEN ADINGAREKI. 22-20AK ARTE BAKARRIK SALTZEN DITUGU EDARI ALKOHOLIKORNIK.

Konbina itzazu nahi duzun bezala

2. alea -%70

ale 1 3,50€

2. alea **1,05€**

GRAN VENDEMA edo BARDESANO Errioxako ardoa Ardo ondua 75 cl



Txerrikume osoa Kiloa

7,99€



Ganba erraldoia 20/30 pieza kg bakoitzeko (Soltean edo 2 kg-ko kutxatan) Kg bakoitza

7,99€

Kutxa bakoitza 15,98€

60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Doan

Autobideko bidesaria


carrefour.es



Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabari Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube) - Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



Abenduaren 31ra arte

ESKUBALOIA

Bergararrek irabazi, bigarren zatian taktikaz aldatuta

- ▶ Lehen zatian gaizki ibili ziren Soraluze BKEkoak erasoan zein defentsan
- ▶ Josu Agirrek besoa atera zuen eta taldea lesionatuz beteta dute orain

EMAITZA

SORALUZE BKE

38-31

SDB GURE AUZUNE

IRATI GOITIA | BERGARA

Gure Auzune hartu zuen Labe-garaletan Bergarak zapatuan. Emaitzari begiratuta badirudi Muniategiren mutilek nahiko erraz irabazi zieten kanpotarrei, baina ederki sufritu behar izan zuten. Izan ere, lehen zatian ez ziren fin ibili eta nahiko lan izan zuten partiduari buelta emateko bigarren zatian.

Lehen zatia: txarra

Lehen 30 minutuetan mahoneroak ez ziren fin ibili erasoan eta ateria gelditzen ere ez zuten asmatu. Bakarkako defentsa ezarri zioten Gure Auzuneko jokalariei, baina kanpotarrek erraz aurkitzen zituzten hutsuneak etxeko defentsan. "Jokalariei oso ona daukate eta harekin obsesionatu gara, ez dugu ondo defenditzen jakin". Hala, kanpotarrek markagailuan aurretik jarri ziren, baina ez zuten alde nabarmenik ateratzea lortu. Izan ere, bi goleko abantaila izan zen asko jota lortu zutena. Hain zuzen, atsedendira ere alde horrekin joan ziren: 16 eta 18ko emaitzarekin.

Berpiztu

Bigarren zatian berpiztu egin ziren bergararrak. Muniategik taktikaz aldatzea erabaki zuen: jokalariei guztiak lerroan jarri zituen defenditzen. Askoz hobeto ibili ziren. Gainera, Ibai Larrañaga atezainak izugarritzko geldituak egin zituen eta hori izan zen gakoa. Kanpotarrek 20. golean denbora luzez egon ziren trabatuta eta etxekoek aurrera egin zuten. Erasoan ere joko hobea erakutsi zuten Muniategiren mutilek. Aipatzekoa da baita ere Mikel Plazaola jokalaria, oso partidu ona egin zuen-eta. Bota zuen guztia sartu zuen eta gol ikaragarriak ikusteko aukera izan genuen.



Aterioak Mikel Plazaola jokalaria gelditu nahian. | IMANOL SORIANO

Horrenbestez, azken minutuetarako aldea handitzea lortu zuten. Azkenean, zazpi goleko abantailaz irabazi zuten mahoneroek.

Lesio asko

Pozik ziren bergararrak partiduaren amaieran irabazita, baina baita larri ere. Izan ere, Josu

Agirrek besoa atera zuen eta dagoeneko sei baja dituzte. "Lesio asko ditugu eta estu gabiltza. Ea hiru asteko geldialdi hau aprobetxatzen dugun. Horrenbeste lesioz, beldur nintzen. Bi puntuarekin konformatzen nintzen, baina lau atera ditugu eta oso pozik", zioen amaieran Muniategik.



Txapelketaren amaieran, neska saria eskuetan dutela. | JON AGIRRE

ESKALADA

80 partaide, Boulder eskolen arteko lagunarteko txapelketan

I.G. | ARETXABALETA

Boulder eskolen arteko lagunarteko txapelketa jokatu zuten egubakoitz arratsaldean Aretxabaletako Ibarra kiroldegian. Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako neska-mutikoak elkartu ziren bertan. Guztira 80 inguru. "Oso gustura gaude, izan ere, asko izan dira animatu direnak", esan digu Debagoieneko eskalatale taldeko Josean Mulasek. Gainera, oso giro ona izan zuten: "Eskalada ez da futbola bezala.

Eskaladan ez duzu beste herriko gaztetxoaren aurka egiten, horma da gaintu beharrekoa. Beraz, guraso guztiak animatzen zituzten haur guztiak; Oñati, Aretxabaleta edo Arrasatekoak izan".

Hiru adin tartetan banatuta (6-9 urte, 10-13 urte eta 14-17 urte) bi proba egin zituzten. Egubakoitzekoaren aurretik, Oñatin egin zuten lehen proba. Amaieran, irabazleak saritu zituzten.

TXIRRINDULARITZA

Debagoieneko Txirrindularitza Klubak dei egiten die txirrindulariei klubeko bazkide egin daitezen

Arrasateko Debagoiena Txirrindularitza Klubak laster emango dio hasiera denboraldi berriari eta zikloturistak klubeko bazkide egitera animatu nahi ditu. Hala, horrek dauzkan abantailaz gozatzeko aukera izango dute, besteak beste: instalazioak erabiltzeko eta irteeretan parte-hartzeko. Izena eman nahi duenak jo dezala klubak Inazio Zuloaga 10 behean duen egoitzara, abenduaren 26tik urtarrilaren 2ra, 18:30etik 20:00etara.

OÑATIKO KIROL SARIAK

Oñatiko Kirol Sariak banatu dituzte kirolarien urteko lana goraipatzeko

Aurten, lehenengoz, herritarren saria banatu dute eta Josune Odriozola igerilaria gailendu da herriko lau hautagaien artean, 300 bozka jasota

I.G. | OÑATI

Oñatiko Kirol Sariak banatu zituzten egubakoitz iluntzean eta jendez bete zen udaletxeko osoko bilkuren aretoa. Kirolarien lana saritzea da helburua.

Kirolari onenaren saria Andoni Bernalentzat izan zen. Eskubaloian jokatzeko du Ford Mugarri taldean eta bere lana goraipatu zuten. "Eskertzen dut saria, baina nirea talde lana dela esan nahiko nuke", esan zuen Bernalek saria jasotzean. Taldeko kirol saria Aloña Mendiko karate sailak eraman zuen. 70 partaide inguru ditu eta urtean zehar domina ugari irabazi dituzte. "Urte asko daramatzagu isilean lanean, ez da-eta kirol hedatua, baina gustura gabiltza", esan zuten

arduradunek. Entrenatzaile saria Aitor Oruetarentzat izan zen. Bi hamarkada luze daramatza futbol sailean eta, aurten, Alaveseko gazte mailako taldea entrenatzen hasi da. "Berezia da saria herrian jasotzea", esan zuen. Kirolaren alde eginiko lanagatik Aloña Mendiko pilota saila saritu zuten, urteetako ibilbideagatik. Bi aipamen berezi ere izan ziren: Itsaso Egañarentzat, eskubaloian eginko ibilbide profesionalagatik; eta Migel Angel Palacinentzat, kenpoa herrira ekartzeagatik.

Aurten, lehenengoz, herritarrek bozkatzeko aukera izan dute eta lau hautagaien artean, botoen %56 lortuta, Josune Odriozolak eraman du saria. Herritar guztiak eskertu zituen Odriozolak.

SARITUAK

Banakako kirol saria:

Andoni Bernal

Taldeko kirol saria:

Aloña Mendiko karate saila

Entrenatzaile lanagatik saria:

Aitor Orueta

Kirolaren alde lan egiteagatik:

Aloña Mendiko pilota saila

Aipamen berezia:

Itsaso Egaña

Aipamen berezia:

Migel Angel Palacin

Herritarren saria:

Josune Odriozola



Oñatiko kirolari sarituak, eskuan oroigarria dutela, eta udaleko ordezkariak. | IMANOL SORIANO



Partaideetako bat lokotxa eramaten. | 1B



Bi talderen arteko norgehiagoka, giza proba amaitzear. | 1B



Talde ezberdinak, zaku-eramate lasterketarako prestatzen. | 1B



Herri eskolako zazpigarren jardunaldiari amaiera emateko, benjamin kategoriako gaztetxo guztiek sokatira erraldoia egin zuten. | IMANOL BELOKI

HERRI KIROLAK

Eskola Kirola jardunaldian pozik ibili ziren haurrak herri kirolean

Benjamin eta alebin mailako 80 gazte inguru izan ziren Bergaran

IMANOL BELOKI | BERGARA

Eskola Kirola egitarauaren barruan, zazpigarren jardunaldiak ospatu zituzten egubakoitzean Aranzadi ikastolako patioan (Seminarioan), eta herri kirolean aritu ziren neska-mutikoak.

Bergara, Antzuola eta Elgetako gazteek ederki pasa zuten arratsaldea. Benjamin kategoriakoak hasi ziren aurrea eta, jokoak aldatu ahala, taldeak nahastu

zituzten antolatzaileek. Alebinen mailan, ordea, denborak neurtzen ibili ziren antolakuntzakoak, lehiakortasun puntu bat ere emateko kategoria horretako probei. Hori horrela, alebinetako talde misto onena Gipuzkoako Txapelketarako klasifikatuko da; gaur zehaztuko dute, seguruenik, nor izan den txapelketa horretarako txartela bereganatu duen taldea. Aitor Gartziaren esanetan, fede-

razioko antolatzailea, helburua ez da irabazle bat egotea, ordea, disfrutatzea baizik: "Gure kulturaren parte garrantzitsua dira herri kirolak, eta horien garrantzia transmititu nahi diegu haurrei".

Bergaran hotz egiten zuen, hala ere berehala berotu ziren partaideak, alde batetik bestera korrika. Gurasoak, ordea, hoztuta egon ziren hasieran, baina,

pixkanaka, animatuz joan ziren. Txingak, zaku-eramate lasterketa, soka-tira, giza froga eta lokotxak bezalako herri kirolak eza gutu eta praktikatzeko aukera izan zen eta asko disfrutatu zuten bertaratu ziren guztiek. Benjaminen mailan 50 bat gazte batu ziren; eta alebinetan, 30 inguru. Epaila eta antolakuntza lanetan, Euskal Kirol eta Jokoen Federazioko begiraleak eta eskola bako-

tzeko arduradunak ibili ziren eta gaztetxo gehiago batzea espero zuten arren, oso gustura geratu ziren jardunaldiak emandakoa-rekin.

Helburuak

Giza harremanak lantzeko, haurren garapen eta formaziorako, eta kirola egitearen onurak barneratzeko asmoarekin egiten dira jardunaldi hauek, eta emaitza positiboa da. Gainera, euskararen erabilera sustatzeko eta hainbat balore barneratzeko ere ekintza garrantzitsua da Eskola Kirola.

Oporren ondoren

Herri kirolekin, amaitu dira Eskola Kirolak. Oporrak hartu dituzte orain, deskantsatzeko. Baina Gabonak amaitu bezain pronto, urtarrilaren 11n -zapatua-, berriz hasiko dira kirolean.



AITOR GARTZIA
FEDERAZIOKO ANTOLATZAILEA

"Herri kirolak egitera etorri gara. Guk materiala ekarri eta umeei nola erabili erakusten diegu. Eskola kirolean kirol ezberdinak izaten dira; eta herri kirolekin, umeei erakutsi nahi diegu, besteak beste, dena ez dela futbola".



GARAZI LARREA
KOORDINATZAILEA

"Lau eskolatatik etorri gara, benjaminak 50 eta alebinak 30. Musika kontzertua eta gimnasia erritmikoko erakustaldia direla-eta, pentsatutakoa baino gazte gutxiago etorri dira, eta hotzak ere ez du lagundu".



ENEKO GARITANO
PARTAIDEA

"Bi joku irabazi ditugu: giza-froga eta zaku-eramate lasterketa. Askok gustatu zaizkit jokuak, nahiz eta aurretik ezagutzen nituen. Nire kirolik gustukoena txirrindularitza da, baina herri kirolak ere ondo daude; oso ondo pasatu dut".



XABI BALDEON
PARTAIDEA

"Dagoeneko hiru joku egin ditugu. Oso ondo ibili gara guztietan eta giza-froga eta zaku lasterketan garaile izan gara, gainera. Erraz irabazi dugu. Ea sokatiran ere zortea dugun eta garaipena eskuratzen dugun".



NAIARA ARANBURU
IKUSLEA

"Nire anaia ikustera etorri naiz eta oso ondo ikusi dut orain arte. Gurasoekin etorri naiz animoak ematera. Gero, nire txanda izango da, ni alebin mailakoa naiz-eta. Prestatuta etorri naiz eta hasteko irrikaz nago".

Gabonetan zer eta zenbat opari egin diezaieke Olentzerok gure umeei?

Maite Garairgordobil psikologoak gomendatzen du hiru opari nahikoa direla

ANE ETXEBERRIA / L.Z. | ARRASATE
Gurasoen ohiko kezka izaten da urte sasoi honetan: zer eta zenbat oparitu? Eskatutako guztia eman edo ez? Adituek, aurten ere, egin dituzte hainbat gomendio: ez dezateela opari asko jaso, oparitzen dituzten jostailuak irizpidez aukeratuak izan daitezela, oparia jasoko duenaren adin eta pertsonalitatera egokitu egon dadila, eta garapen kognitiboa, emozionala eta soziala erraztu dezateela, baita psikomotrizitatea ere.


Kontua da, ez ditugula beti ezaugarri edo gomendio horiek kontuan hartzen. Gure inpultso kontsumistak bultzatuta erosten ditugu opariak. Hori dela eta,

haurren psikologian adituak direnek, urtero urtero opari gehiegi ematearen akatsaz hitz egiten digute, euren ustez, hobe delako gutxi oparitu baina irizpidez aukeratuak opariak izatea.

Kontsumismoan harrapatuak
Guraso batzuk ez dute denborarik seme-alabekin egoteko eta pentsatzen dute opari asko emanaz, etxeko txikiak poziago egongo direla. Eta hori ez da zertan hala izan behar. Haur askok 10 opari baino gehiago jasotzen dituzte Gabonetan, eta hori gehiegizkoa da. Horrelakoetan haurrek ez dakite zein aukeratu, urduri jaritzen dira, asalatu egiten dira,

eta ez dute jolasten. Ez dira ilusionatzen, ez dira hunkitzen, inguru kontsumistan harrapatuak gelditzen dira. Horrenbeste gauza edukita frustrazioari tolerantzia baxua garatzen dute.

Hiru jostailu nahikoa
EHUko psikologiako irakasle Maite Garairgordobilek dio hiru oparirekin nahikoa dela. Beharrezkoa bada aitona-amonekin, izeba-osabekin... hitz egin behar da. Garrantzitsua da jostailuek esperientzia desberdinak bizitzeko aukera ematea, imajinazioa sustatzea eta garatzea. Hori dela eta, jostailu ona imajinazioa indartu eta haurra dibertitzen duena da.



Umea, eta zuhaitzaren azpian, Gabonetako opariak. | XUMET

Umeak txikiak direnetik hasi behar dugu autonomia lantzen eta adinaren arabera askatasuna ematen

Seme-alabak gehiegi babestea eurengandik hoberena lortzeko bide okerra da; izan ere, segurtasunik eza eta dependentzia indartzen ditugu

A.E. / L.Z. | ARRASATE
"Pentsatu duzu inoiz sufritzeak edo borroka egiteak ez duela zertan poztasunaren aurkakoa izan?". Maria Jose Roldan psikologoaren hitzak dira seme-alabak gehiegi babesteari buruz egindako artikuluan. "Zuk nahi zenuena lortzeko borroka egin eta gero, ez zinen zure buruarekin ondo sentitu? Bada, seme-alaben kasuan berdin".

Roldanek azaltzen du sufri-mendurik ezak, zailtasunetatik at bizi edo ez borrokatzeak ez duela zertan zorientasuna ekarri. "Egia da, baita ere, bizitza honetan sortzen diren hainbat unetan seme-alabak gehiegi babestera eramaten gaituela senak, eta horrelakoetan ez da ezer pasatzen. Arriskua hasten da gehiegizko babesa heziketaren ardatz bilakatzen denean", ohartarazten du psikologoak.

Gehiegizko babesa ematen duten gurasoen existentzia sarri haurrekin pasatako denbora laburren ondorio dela dio adituak. Hau da, haurrekin denbora laburra pasatzean, euren seme-alabak nolabait berreskuratze aldera edo, gehiegi babesten dituzte. Halaber, gerta daiteke gurasoek ez izatea konfiantza nahikoa umeen posibilitate edo aukeretan.

Erabakiak hartzen utzi

Noiz hasi behar da autonomia indartzen? "Txikitatik! Zure haurraren konfiantza izan behar



Mutikoa bakarrik jolasean. | SE02

duzu", dio Roldanek inongo zalantzarik gabe. "Gurasoen betebeharrak da irakastea egunerokotasuneko zailtasunen aurrean estrategia desberdinak garatzen. Erabakiak hartzeko gaitasuna izan behar dute haurrek, eta erabaki egokiena hartzeko bidean laguntza eskaini behar diote gurasoek".

Askatasuna eman

Erabakiak hartzen erakustez gain, umeek ikasi behar dute erabaki horiek ondorio batzuk izan ditzaketela, eta horien konziente izaten erakutsi behar dute

gurasoek. Hau da, ondorio horiei aurre egiteko kapazitatea izan behar dute umeek. Noski, bizitza osoko irakasgaia da honakoa. Ez da egun batetik bestera lortzen, baina horrek izan behar luke gurasoen helburua edo norabidea.

Maria Jose Roldan psikologoak gogorarazten du seme-alabek askatasuna behar dutela euren autonomia handitzeko, eta horretarako beharrezkoa dutela ardurak hartzea. Lana, betebeharrak eta ardurak exijitu behar zaizkie. "Noski, maitasun eta laguntza guztiarekin", dio.

Ezkorregiak diren umeekin autoestimua handitzeko ekintzak egingo ditugu

Ezekotasuna agertzen denean garrantzitsua da umeari zailtasunak gainditzen laguntzea

A.E. / L.Z. | ARRASATE

Negatibotasuna zure seme-alabarengan egon daiteke, eta horrekin bizitzen ikasi behar dugu, baita horren aurka borrokatzen ere. Ezekotasuna edozein adinetan aurkez daiteke, eta honek bizitzeko eta izateko moduan eragiten du.

Haur negatibo bat beti dago umore txarrez, kexu da une oro, dena gaizki ateratzen zaio la uste du, gose denean edo nekatuta dagoenean dena okerragoa da, kontrakoa den ekintza baten ondorioak handitu egiten ditu, eta proiekturik badu esku artean pentsatuko du porrot egingo duela. Gurasoek, baina, horiek guztiak aldatzen lagun dezakete.

Negatibotasunari aurre

Garrantzitsua da umearen pentsamendu negatiboek familiako giroan eraginik ez izatea. Ez egin dramarik pasatzen diren gauza guztiekin. Entzun haurrari, eta saiatu ulertzen. Esan, gainera, ulertzen dugula, baina esan baita ere pentsatzen ari dena ez dela horrenbesteko. Lasaitu umea, adierazi zailtasunak gainditu daitezkeela, eta sinistu arazi dena ongi joango dela. Horrekin batera, segi egunerokoarekin. Modu positiboan ekiten lagunduko diogu, lasaitasuna, poztasuna eta autoestima handitzeko balioko dioten ekintzak burutuko ditugu berekin, eta, nola ez, eredu izango gara.



Umea triste. | FIDEL MENDIA

KULTURA



Miguel Gonzalez Bastidari zuzendutako kontzertu amaierako *tutti*-a; agertokiaren ondoan musikagile bergararraren irudia jarri zuten. | IMANOL SORIANO

Miguel Gonzalez Bastida bere piezekin gogoratu dute Gabon kontzertuan

Konpositore bergararraren seme-alabek Udalaren oroigarria jaso zuten *tutti*-aren aurretik

FITXA

MUSIKA

BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDA, ARITZETA ABESBATZA, BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA ETA BERGARAKO ORFEOIA

Non: Bergarako Udal Pilotalekua.

Eguna: Zapatua, abenduak 21.

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Bertan egon gabe ere, Miguel Gonzalez Bastida musikari eta konpositore bergararrak gidatu zuen zapatuan Bergarako Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoia eskainitako Gabonetako kontzertua.

Agertokiaren alde batean duela gutxi hildako Gonzalez

Bastidaren irudi handi bat jarri zuten, bere jaiotze- eta heriotza-urteekin batera.

Oroimenerako giro horretan eta *Subterra* piezarekin eman zion hasiera kontzertuari Bergarako Udal Musika Bandak. Aritzeta Abesbatzaren lehen pieza Gonzalez Bastidak konposatutako *Errekatxo kantari* izan zen eta herritarren emozioak azaleratu zituen.

Begarako Orkestra Sinfonikoaren emanaldiak giro biziagoa jarri zuen Udal Pilotalekuan, Mecanoren hainbat abesti interpretatu zituen-eta Ainara Ortega bakarlariarekin batera. Ondoren, dantzan ikusi genituen Bergarako Orfeoiko kideak.

Oroigarria eta 'tutti'-a

Gabonetako kontzertuan parte

hartutako musikari guztiek agertokia bete zuten *tutti*-a interpretatzeko. Gonzalez Bastidak gogoko zituen Gabonak eta hark konposatutako *Gabonetako estanpak* pieza interpretatu zuten, haren seme Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren zuzendaritzapean.

Aurretik, baina, bere seme-alabek oroigarri bat jaso zuten Jaione Isabelaia alkatearen eskutik.



GOSPEL KONTZERTUA OÑATIN Gospel doinuak entzun ahal izan zituzten oñatiarrek egubakoitzean Santa Anan. Eta harrera ezin hobea egin zioten Frantziako Tolosako Soulshine Voices taldeari, aretoa bete egin zen-eta. Musika alaia da gospela eta abeslariak euren ahotsaren indarra erakutsi zuten Oñatin. Besteak beste, Gabon kantak eskaini zituzten.



ORGANO, TRONPETA ETA SOPRANO EMANALDIA ARETXABALETAN Musika doinuekin eman zioten amaiera asteburuari atzo Aretxabaletan. Andramari eliza jendez bete zen, Jose L. Franzesena organista, Jon Aramendi tronpeta-jotzailea eta Mariatxen Urkia sopranoa entzuteko. Elizako aulkiak alderantziz jarri zituzten hiru musikariak entzuteko.



Ez zaitez galdu.

EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan

Beste hamar urterako indarra dutela argi utzi zuten Ganbara Txikikoek

500 pertsona bildu ziren Zubikoa kiroldegian atzo arratsaldean



Denboraren makinan sartu duten kaxa. | JOSETXO ARANTZABAL



Ganbara Abesbatzako familia. | JA



Ganbara Txikikoak. | JA

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Ilunetan eta kandela batekin eskuetan. Horrela hasi zuten atzo Ganbara Txikiko hamargarren urteurrenaren ospakizuna, jendez gainezka zegoen Zubikoa kiroldegian. Giro intimista horretan, Ganbara Abesbatzak eta Ganbara Txikikoek *Media Vita* kantuaz ekin zioten festari.

Argiak piztu, eta eszenatokiaren alboetan, Ganbara Txikiren logo erraldoia eta denboraren makina zeuden. Denboraren makina horren laguntzarekin, Ganbara Txikikoek hamar urteetako errebasoa egin zuten, kantuz eta bideoz lagunduta.

Denboran bidaia

Esan bezala, kantuak eta bideoak tartekatatu zituzten. Besteak beste, Ganbara Txikik Bartzelona, Sevilla edo Torrevejara egindako bidaiak, Torrevejara bertan irabazitako Habanera txapelketa edota *ETB*-ko *Oh Happy Day* saioan parte hartu zuteneko bideoak proiektatu zituzten pantaila erraldoi batean.

Kantuan ere ez ziren bakarrik ibili. Ondoan, Ganbara Abesbatzakoak, Ganbara Txikitxokoak, Tailerrekoak eta Ikastetxeak Kantarikoak izan zituzten.

Josu Elberdiren 'Hamar'

Amaiera ezin hobea eman zioten arratsaldeari, Elberdik urteurrenarako apropos egindako *hamar* kantua interpretatuz eta beste hamar urterako indarrak batuz.

40 urteak ganoraz ospatu zituen Arrasate Musikaleko familiak

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Arrasate Musikalek ospakizun bikoitza egin zuen egubakoitzean: alde batetik, musika eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten Kulturaten; eta ostean, *Arrasate Musikal, herri baten adierazpena* dokumentala aurkeztu zuten.

Musika eskolako ikasleek hasi zuten ospakizuna; taula gainetik hainbat ikasle eta beste horrenbeste instrumentu pasatu ziren. Besteak beste, Henry Manciniren *Pantera Arrosa* edota *Madalento* kantu herrikoia interpretatu zituzten.

Dvd-aren aurkezpena

Ostean, Arrasate Musikalen 40 urteen errebasoa egiten duen dokumentala aurkeztu zuten.

Hamar bat minutuko laburpena proiektatu zuten Kulturaten. Bertan, musika eskolaren hastapenak eta gaur egungo egoera aztertzen dira. Marta Izagirrek, Arrasate Musikaleko zuzendariak, esker oneko hitzak izan diren guztientzat. Eta 40 urte barru, gaur egungo ikasleak etorkizuneko guraso eta irakasle izateko esperantzaz amaitu zuten egubakoitzeko festa.



Soka talde gaztea *Txirristan* abestia interpretatzen. | JAGOBA DOMINGO

Bi belaunaldi batu ziren Elgetako gaztetxean Ostiada Oi! taldeari agur esateko gogotsu

Lehenengo kantutik, zale guztiak kantuan jarri zituzten zapatu gauean

JAGOBA DOMINGO | ELGETA

Elgetako gaztetxea goraino betetzen Ostiada Oi! taldeari lagun artean agur esateko.

Hiru bat urte taulatik aldentuta ibili arren, zapatuan Elgetako eta inguruetakoko *skinhead* eta musika-zaleak Ostiadaren lehenengo abestitik azkenera kantuan eta alderik alde ibili ziren. Bilboko B.C. Bombs eta Elgeta aspaldi bisitatu ez duen Ondarroako Jonny Gerriwelt izan zituzten bidelagun.

Basque Country Bombs

Bilboko laukoteak izan zuen gaua hasteko ardura, eta muga goian jarri zuen. Kontzertu indartsua egin zuen, kantuak kolpeak bairira, bata bestearen atzetik jotzen. Punk rock-a eta rock and roll-a da B.C. Bombs-en nortasun ikurra eta argi utzi zuten ondo egin dutela; publikoa hotz zegoen arren, gogotsu aritu ziren.

Ostean, Jonny Gerriwelt boskotearen txanda heldu zen. 77ko punk musikaren ordezkari bikainak

izan ziren eta The 4 Skins taldearen *Evil* kantuak zoramena eraman zuten gaztetxera.

Agur eta ohore Ostiada Oi!

Emozioz betetako kontzertua izan zen. Josu baxu-jotzailea gaixorik egon arren, Kaleko Urdangako Asierrek ondo baino hobeto bete zuten eginbeharrekoa. *Euskadi, Antifascista* edo *Skinhead 1969*; klasiko guztiak jo zituzten eta askoren oroimenean geratuko den gaua izan zen.



Ostiada Oi! elgetarren agurreko kontzertua. | JAGOBA DOMINGO



'Atzera' begiratu aurrera egiteko

Komunitate izaten eta komunikatzen segituko dugu, zuei esker.
2014 on!

GURE MUSIKA TALDEAK

DES-KONTROL



Magu, Pepin eta Hodei biniloa esku artean dutela. | JAGOBA DOMINGO

"Bilduma hau ez da Des-Kontrolen azken testigantza, gehiago egongo da; noiz..."

- ▶ Hasieran uste baino urtebete geroago kaleratu dute bilduma
- ▶ Binilo formatuan kaleratu duten diskoak barruan CDa dakar

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

17 urte, zortzi disko, ehunka kontzertu, milaka abentura. Horiek guztiak disko baten laburbiltzea ezinezkoa da; hala ere, Des-kontrolak *Behin eta berriz jarraituko dugu duintasunez eutsiz aurrera begira* bilduma kaleratu zuen duela bi asteburu. Azken urtean asko hitz egin da DSKren inguruan eta gu *Magu*-rengana jo dugu, taldearen sortzaileetako batengana, diskoaz eta etorkizunaz eta iraganaz hitz egiteko. **Zortzi disko bilduma baten laburtzea zaila izango da, ezta?**

Egia esan, ez daude zortzi diskoak bertan, 10 urte diskoaren kanturik ez dago, singleko kanturik ere ez, eta maketako kanturik ere ez. Gehienbat, 2005etik honako kanturik daude, 1999 eta 2005. urteen artean *Behin eta berriz* eta *Sucio Poder* kanturik bakarrik daude. Hala ere, nire ustez, urte hauetako kantu onenak daude,

baliteke bakarren batek ihes egitea hainbat arrazoirengatik. Orain eginez gero, agian, beste era batera egingo nuke.

Zergatik bilduma bat?

Des-kontrol taldea hilda zegoela zioen batek baino gehiagok; bilduma hau oraindik bertan gaudela esateko da.

Momentu arraroa izan zen, taldekideek beste disko bat prestatzeko konbentzitu ninduten, zaila izan zen arren. Eta egun batetik bestera, disko berri bat prestatzen egotetik, bi taldekidek, *Garru*-k eta *Peter*-ek, taldea uztera

pasatu ginen; kolpe oso latza izan zen. Hala ere, ordurako bukatuta geneuzkan bi kanturik grabatzea erabaki genuen. Horiez gain, ideia gehiago zeuden, baina...

Bi kantuen hitzak, gainera, Tedy-k egin zituen.

Haritzaren sustraiak eta *Izarren azpian* kantuen letrak *Tedy*-renak dira, bai. *Tedy*-k taldea utzi ostean izan genituen arazoaren ostean, berriz ere harremana berreskuratu genuen, eta kantu berriak egiten ari ginela esan nionean, letra pare bat zituela esan eta horiek erabili genituen. Oso letra onak egin izan ditu beti.

Kantu berriak Higain estudioan grabatu zenituzten.

Bi kantu berriez gain, *Buru hotz eta bihotza bero* ere grabatu genuen. Kantu hori *Aurrera begira* diskoan bertsio akustikoan dago, eta, ona izan arren, bertsio hau indartsuagoa da. Letra, gainera, Orreaga 778ko Peio Lamar-

"Kantu berrien letrak 'Tedy'-k idatzi ditu; letra onak egiten ditu"

ZERTZELADA



BEHIN ETA BERRIZ JARRAITU DUGU DUINTASUNEZ EUTSIZ AURRERA BEGIRA

Estiloa: Street-Punk.

Egilea: Des-Kontrol (Arrasate, 2013).

Argitaletxea: Mauka Musikagintza.

Iraupena: 41:29 minutu.

'Atzera begiratu aurrera egiteko'

Des-Kontrol-ek Arrasateko Oi!-aren tradizioari jarraituta eta gerora harago joanda arrakasta lortu zuen Euskal Herria mailan. Bilduma honetan (LP eta CD biak bat) orain arteko ibilbideko 12 kantu batu dituzte: Ingalaterrako Oi!-aren jarraitzaile sutsuak zireneko 'Behin eta berriz', ska ukituak (eta saxoa) dituen 'Sortu edo hil', 'Duintasunez eutsi' zein 'Beti elkarrekin' hunkigarriagoak eta Puñetazoren 'Sucio poder', besteak beste. Horiez gain, 'Buru hotz eta bihotza bero' berriz grabatu dute; eta gitarra eta gorputz handiagoa zein hitz zainduagoak dituzten 'Haitzaren sustraiak' eta 'Izarren azpian' kantu berriak gehitu dituzte.

IKER BARANDIARAN

kak idatzi zuen, Meco espetxean preso zegoela. 2012ko urrian grabatu genituen, Higainen, Haritz Harreguyrekin. Bateria Kaotiko taldeko Xabik grabatu zuen eta horren ostean bi kontzertu egin genituen *Arri* gitarran zegoela. Hain zuzen, Hatortxu Rock jaialdian eta Arrasateko

Gaztetxean, Naiara Agredarentzat dirua batzeko kontzertuan, jo genuen formazio horrekin.

Diskoak aurreko urteko Azokan ikusi behar zuen argia; zer gertatu da urtebeteko atzerapena izateko?

Esan bezala, 2012ko urrian sartu ginen estudioa eta bukatu bezain laster fabrikara bidali genuen diskoa. Hala ere, zenbait gauza txarto egin genituen eta konpondu artean itzarotea erabaki genuen. Behin dena konponduta, Azokara itzarotea erabaki genuen, batez ere Maukakoentzat hobe zelako.

Sucio Poder kantua ere berezia da oraingo honetan, ezta?

Bai; Puñetazo taldeko Marianoren omenez sartu dugu kantua. Diskoan hamabigarren kantua da, baina berez hamaikagarrena beharko litzateke. Kontua da, omenaldi bezala, hamaikagarren pistako 9:06 minutuan hasi behar zuela, irailaren 6an hil zen eta. Baina masterrean beste hankasartze bat egin, eta hamabigarren pistan dago.

Asko hitz egin da azken urtean DSKren egoeraren gainean; zelakoa da gaur egun?

Geldi dago. Bueno, Dirty Brothers-ekin batera bospasei kantu egin ditugu Hodeik, *Pepin*-ek eta hirurok, Elkartasun Egunean eta Berlinen, esaterako, baina bestela ez dago ezer eta, oraingoan, ez dago ezer egiteko asmorik. Baliteke aurrerago zerbait egitea, baina orain ez.

Orduan disko hau azken testigantza izan daiteke?

Ez, ez dago asmo horrekin eginda; gauza gehiago egingo dira, baina noiz... hori beste kontu bat da.

Biniloa non egongo da salgai?

Oraingoan, Arrasaten, Dat, Iluntz, Amaiur eta Taupa tabernetan eta Nothing Without dendan. Aurrerago, Algorta edo Donostia aldera eramateko asmoa dugu. Diskoa eta CDa 15 euroren truke lor daiteke.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Laugarren solairua da. 72 metro koadro. Egongela, sukaldia, bi logela, komuna eta trasteleku. Guztiz berriua. Bizitza sartzeko prest. Aukera ezinhobea. 99.999 €. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 44 38 44

Bergara. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan ematen da. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldia. Bizitza sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntzarekin. 170.000 euro, negoziagarri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 65 99 94

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldia, egongela, bainugela. Dena kanpokaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 00 84 92

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Beheko auzoan etxebizitza ematen da errentan. Bilogela, egongela, komuna eta sukaldia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 79 60 38

Antzuolan duplexa errentan. Antzuola erdian kokatua dagoen duplex dotorea errentan ematen da. Beheko solairuan sarrera-egongela-sukaldia, zabalik, logela bat eta bainugela guztiz jantzia. Atikoan, 50 metro koadroko logela eta egongela. 550 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 92 18 60

Arrasate. Ferrerías kalean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bainugela eta sukaldia-egongela. Igogailuarekin. Etxe berria. 550 euro hilean, negoziagarri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 76 21 63

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 30 16 89

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Gehenez, 400 euro ordaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 36 17 62

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logelak behar dira atzerrikit etorriko diren ikasle batzuentzako. Otsailaren hasieratik ekainaren amaiera arte. 656 77 66 32

Arrasate. Arrasaten logela hartuko nuke errentan. Alokairuaren kontratua beharrezkoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 664 13 67 44

Bergara. Logelak emango nituzke errentan Zubiurre inguruan. Emakumeentzat nahiago. Deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23

Oñati. Logela alokatzen da plazatik gertu dagoen duplex berri batean (langileei, ikasleei...). Wifi konexioarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 74 29 49

2. GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Beheko auzoan garaje itxia salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 79 60 38

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea ematen da errentan Uribe auzoan, unibertsitatea eta Garaia artean. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 83 06 83

204. ERRENTAN HARTU

Autokarabanandakogarajea. Antzuolan edo Bergaran autokarabana sartzeko garajen bat topatzea gustatuko litzaidake. Deitu telefono honetara: 676 20 74 35

3. LOKALAK

302. EROSI

Aretxabaleta. Lokala erosi nuke. 40-90 metro koadro artekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. 15-16 urteko neskek lokal baten bila gabiltza, Arrasaten. Lokal baten berri badazue deitu zenbaki honetara: 634 45 27 44 edo 671 44 31 90

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Laguntza behar duten nagusien zaintzarako formazioa dut eta lan bila nabil. Zaintzan, garbitasunean zein etxeko lanak egiten jardun naiteke. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

Arrasate. Sukalde laguntzaile gisa lan egingo nuke: pintxoak, platerak eta abar. Zazpi urteko esperientzia daukat sukaldian. Garbiketarak ere egingo nituzke taberna, elkarre eta abarretan. Deitu telefono honetara: 722 45 33 59

Bergara, Antzuola eta Zumarraga. Esperientzia eta erreferentziadun bikotea garbitasunean lan egiteko gertu: etxeak, atariak, elkarre, bulegoak... Langileak gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 91 81 73

Bergara. Esperientziaduna eta tituluduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, baita garbiketara lanetarako ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 77 06 46

Bergaran, Arrasate edo Oñati. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Debagoiena. 24 urteko neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Eritzaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia daukat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa daukat. 617 20 59 43

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA.
- Bolu 66 m², 2 logela. Trasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiurre 56 m², 2 logela. Igogailua, erabat berriua. 135.000 €.
- Matxietegi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trasteleku. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m², 3 logela. Trasteleku. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m², 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m², 3 logela. Berriua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berriua.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berriua.
- Ibarra 65 m², 3 logela. Berriua. 114.192 €.
- Zubiurre 82 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 82 m², 2 logela. 96.000 €.
- Matxietegi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berriua.
- Franzozuri 78 m², 3 logela. Balkoia, trasteleku eta garajearekin. 205.000 €.
- Martxo 140 m², 4 logela. Berriua. Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berriua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxietegi, 115 m², 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berriua. Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurritegi 83 m², Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Aiherra 83 m², 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.

SORALDIA:

- Sagor Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdia 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

OSINTXU:

- Osintxu 85 m², 3 logela. Igogailua. Berriua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

Debagoiena. Mutila pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. 699 09 46 26

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edota garbitasunean lan egingo nuke. Esperientzia dut geriatrian eta erizain laguntzaile moduan. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: egun osoz, etxean bertan bizi izanda, edo bestela. 673 78 08 99

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarako orduko egiteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska espainiarra lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. Asteburuetan edo gauetan ere bai. Esperientziaduna. 722 32 43 67

Debagoiena. Neska euskalduna eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, baita gauak ospitalean pasatzeko ere. Garbiketara lanak ere egingo nituzke. Edozein ordutan lan egiteko prest. Autoa daukat. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska lanerako gertu nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Garbitasun lanetan ere bai. 602 64 68 17

Debagoiena. Neska lanerako gertu: tabernatan, etxean eta abar. Neska arduratsua, langilea eta euskalerriarra. 943 53 28 45 edo 659 34 31 43

Klinika laguntzaile. 25 urteko esperientziadun klinikako laguntzaile naiz. Ospitalean jendea zaintzeko prest nago. 609 98 02 52

Neska euskaldunahaurrak zaintzeko prest. Gizarte hezkuntzan ikasketak dituen eta haurrekin esperientzia duen 28 urteko neska oñatiarra naiz. Arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Deitu 637 05 63 35 zenbakira.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Fisika eta kimika. Batxilergo ikasten diharduen mutiko bati fisika eta kimika eskola partikularak emateko norbait behar dugu. Aretxabaletan. 649 55 48 10

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskola partikularak ematen ditut. Kanada eta Erresuma Batuan esperientziaduna prest ingeleseko partikularak emateko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta gazteei. 699 01 85 84

Bergara. Neska euskalduna eta esperientziaduna. Lehen Hezkuntzako eskola partikularak emateko gertu. 655 72 41 22

6. MOTORRA

601. SALDU

Ford Transit Nugget. furgoneta salgai 140 ZP, 6 abiadura, 38.000km eta 2009 urtekoa. Guztiz ekipatua eta egoera oso onean. Deitu 652 73 12 56 telefonora.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Hamsterrak. Hamsterrak ematen dira opari. Kaiola ekarri behar da. Amaia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 90 78 17

8. DENETARIK

801. SALDU

Conor WRC Road Ride errepideko bizikleta. Aluminiozko kuadroa eta karbonozko horkilarekin. Shimano Ultegra piezak. Interesatuok deitu telefono honetara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 687 11 07 21

Izei kuartoak. Douglas Izei kuartoak salgai etxe edo txabola eraikuntzarako egokiak. Guztira 14 dira 125mm zabal, 75mm altuera, 3.350mm luzera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara eta Jonengatik. 629 37 35 35

802. EROSI

Elurretako erraketak. erosi nitzuzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

Motozerra. Stihl etxeko motozerra erosi nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98

Ogia egiteko makina. Soberan daukazu ogia egiteko makina hori saldu nahi baduzu deitu telefono honetara: 666 45 87 32

804. HARTU

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko daukazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

Moisesarentzako gupilak. Moises kapazo batendako gupilak behar ditut. Emateko edo saltzeko badituzu, gustura hartuko nituzke. 688 61 73 43

Poltsikoko egutegiak. Poltsikoko egutegi txikiak hartuko nituzke. Edozein urte eta iruditakoakizan daitezke. 617 17 15 88

806. GALDU

Eskularru eta lepokoa. Eskularruak eta buffa galdu nituen Mekolalderako bidean abenduaren 17a inguruan. Aurkitu duenak dei dezala mesedez zenbaki honetara: 943 76 52 39

807. AURKITU

Kandatuak. Kandatu sorta bat aurkitu nuen Ibargarai kalean azaro hasiera aldera. Galdu duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 656 76 67 70

808. BESTELAKOAK

Informatikaria. Nire webgunean 103 orriko poesia lana jarriko didan informatikaria behar dut. Prezioa adosteko. Manu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 77 86 38



Olatz Pagalday

Aktorea

Kultura maite dugunondako

Txunditzeko modukoa da gaur egun gure herrietan dagoen kultura eskaintza zabal eta askotarikoa. Sarri kexatu izan gara ezer ez dagoelako. Halakorik ez Debagoiengan! Edozein asteburutan era askotako ekitaldiak aurkituko ditugu han eta hemen. Udalek edo gaztetxeek antolatutakoak ez ezik, bestelako ekimenetatik bultzatutakoak ere hamaika. Goienako kultura hitzorduei erreparatzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Edo *Planik bai* saioa ikustea. Edo asteleheneko *Goiena* papereko kronikak eta argazkiak irakurtzea eta ikustea.

Hemen, kulturaren murgilduta gabiltzanondako, izan programatzaile edo izan sortzaile, ezinbesteko plataforma dira Goienako hedabideak. Ekitaldiak iragartzeko edo haien berri emateko ez ezik, gure sorkuntzaren,

**Behar-beharrezkoa
dugu Goiena; lagun
diezaiozun**

kezken, nondik norakoaren... gure lanaren berri izateko. Bozgorailu edo mezu biderkatzaile ezinbestekoak dira.

Kultura maite dugunondako, emaile edo jasotzaile, behar-beharrezkoa da Goiena. Lagun diezaiozun. Zeinek emango du, bestela, esaterako, gure azken antzezlanaren berri? Ikusi duzu? Informazioa, Goienan.

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!



Nokia markaren Lumia 1020 gailuak 41 megapixel ditu eta kalitate oso oneko argazkiak ateratzen ditu. | MASHABLE.COM

Smartphoneetako kamerak, argazki kameraren pareko

Hamarkada batean smartphoneetako kamerak 0,1 megapixel izatetik 41 megapixel izatera pasa dira

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Duela 13 urte baino gehiago merkaturatu zen argazkiak ateratzeko aukera ematen zuen lehenengo mugikorra Japonian. Sharp markako J-SH04 izan zen; 0,1 megapixeletako irudiak ematen zituen, 256 kolore zituen pantailan. Hala ere, azkar etorri dira kalitate geroz eta hobeko argazkiak ateratzen dituzten telefono mugikorrak.

Goi gamako smartphoneak eremu askotan lehiatzen dira, tartean kamerarean. Megapixelak, optikaren kalitatea, sentsorearen tamaina, lentearen irekiera maximoa... Nokia eta Sony dira ondoen moldatu diren markak -aurreko hamarkadan ere halaxe izan zen-

eta euren gailuek dituzte orokorrean kamera onenak.

Marka ugarietako gailuak

Nokia markaren Lumia 1020k 41 megapixel ditu. Carl Zeiss lenteak ditu, irudiaren egonkortzaile optikoa dauka, RAW formatuan sakatzeko aukera ematen du, eta eskuz kontrolatuta, beste mugikorrek baino kalitate hobeko argazkiak eskaintzen ditu.

Sonyk irailean aurkeztu zuen bere Xperia Z1 gailua. Ur azpian sar daiteke, eta hori da berezitasun nagusia. 20,7 megapixel ditu, 1/2ko sentsorea dauka, hiru hazbete, G lenteak eta bi segundotan 61 irudi atzemateko ahalmena dauka. Hardware eta softwarean

ere aurrerapausoak ditu eta erantzun oso onak ematen ditu bai ur barruan eta baita egoera arruntetan ere.

Beste marka batzuek nahiago izan dute megapixel kopuruari eustea; izan ere, megapixel gehiago izateak beti ez du esan nahi kamera hobea izango denik. Sentsorearen eta pixel bakoitzaren tamainak ere, esaterako, azkeneko emaitzan eragiten dute.

HTCk urte hasieran bere gailu izarra aurkeztu zuen: HTC One, lau megapixel dituen. Ultrapixel deritzon teknologia darama Taiwango fabrikatzaileak: pixel handiagoak, zenbakitan altuagoa den kamera batek baino hiru aldiz argi gehiago jaso ahal izateko; foku-irekiera handiagoa eta egonkortzaile optikoa. Aukera berritzailea aurkeztu zuen, baina detaileak jasotzeko orduan gailu horrek ez ditu erantzunik onenak ematen.

Applek dio bere iPhoneetako iSight kamerarekin munduan beste edozein kamerarekin baino argazki gehiago ateratzen direla. Bere mugikorretako azken modelo, iPhone 5sa, ez da handitu megapixeletan, baina sentsorea hobetu du, handiagoa jarri du eta birdiseinatu egin dute tamaina handiagokoak diren pixelak aprobetxatzeko. Argiarekiko sentsibilitate handiagoa dauka eta kolore lortuagoak ditu.

Samsungek bere gailu izarrari, Galaxy S4ari, kamera orekatu bat jarri zion; 13 megapixel ditu eta emaitza onak eskaintzen ditu. Hego Koreako markak bere mugikorren zoom bertsio bat ere aurkeztu zuen. Hamar handiagotze dituen zoom optikoak kamera konpaktu baten antza ematen dio gailuari.

Gaur egun, mugikor batean funtsezkoa da kalitate ona ematen duten argazkiak ateratzea, eta horregatik, fabrikatzaileek ere kontuan hartzen dute ezazgarri hori.

Irudietan ematen zuen kalitatearengatik oso kritikatu izan zen Googleren Nexus 4 mugikorra. Kamera txar batek mugikor on baten faman eragin dezake eta Nexus 5arekin konpainiak kalitatezko jauzi bat egin nahi izan zuen. Zortzi megapixel ditu, Nexus 4k bezala, baina nabarmen hobetu da. Lente berria dauka, egonkortzaile optikoa eta HDR modua argi gutxiko egoeretako emaitzak hobetzeko.

Gaur egungo smartphoneen aukera fotografikoak ikaragarriak dira. Lehiaketak antolatzen dira gailu desberdinekin ateratako irudientzako. Esaterako, Oscar bat irabazi zuen *Searching for Sugar Man* dokumentalak eta Al Jazeera Siriako biolentziari buruz egindako erreportaje baterako erabilitako irudiak iPhone batekin ateratakoak izan ziren. Benetako kamera konpaktuak dauzkagu, beraz, esku artean.

Beste txosten batzuetan diote gailua masan fabrikatzen hasteko lehenengo osagaiak 2014ko bigarren hiruhilekoan hasiko direla egiten eta lehian egongo lirake lan hori egiteko ondorengo enpresak, besteak beste: Foxconn, Inventec eta Quanta.

Ordenagailu eramangarri, kargagailu unibertsala

A.T. | ARRASATE

2011n Batzorde Elektroteknikoak oinarriak jarri zituen ordenagailu eramangarri guztiendako kargagailu unibertsalak sortzeko. Oinarri horiek zehazten dute konektoreak nolakoak izan behar duen, zenbateko tentsioa beharko duen eta gehienez zenbateko korrontea emango liokeen gailu bakoitzari, besteak beste.

Kargagailu unibertsalak hainbat abantaila ekarriko ditu; hauek, tartean: erabiltzaileentzako erosoagoa izango da kargagailu mota bakarra egotea, gastuetan aurrezten lagunduko luke eta interoperatibitatea ere erraztuko luke. Hala ere, kargagailu horiek merkaturatu orduko beste pare bat urte pasa beharko dira, batzordetik adierazi dutenez.

Facebookeko bideoak publizitatearekin

A.T. | ARRASATE

Facebook bideoetan iragarkiak sartzen hasiko da pixkanaka-pixkanaka. Modu automatikoan erreproduzitutako dira, hasiera batean behintzat, 15 segundoz web bertsioan eta aplikazio mugikorretan, baina soinua bideoan klik egin ostean hasiko dela diote. Webguneen aldeetan egoten diren bannerrak baino indartsuagoak izango dira bideoetako iragarkiak eta Facebook saiatuko da telebistarekin eta Youtuberekin lehiatzen, iragarkiak jartzeko orduan.

Applek urrian merkatura lezake erloju adimenduna

Haririk gabe eta metro baterako distantzian kargatzeko aukera izango duela aurreikusten da

A.T. | ARRASATE

C-Technology izeneko webgune txinatarraren arabera, Apple erloju adimendunen bi prototipo probatzen ibili da azkenaldian. Oraindik, baina, itxura denez, ez dute erabaki pantailak zein tamaina izango duen, baina baliteke bi tamaina hauetako pantailadun iWatchak merkaturatzea: 1,3 eta 1,7 hazbetekoak.

Bateria

Appleren erloju adimendunak 100 mAh-ko bateria izatea posible

dela azaldu dute webgune horretan. Argi dutena da ez diotela Samsungen Galaxy Gear erloju adimendunak daraman 315 mAh bateria jarriko. Izan ere, hori gutxi iruditu zaie ematen duen autonomia eskasarengatik. Appleren asmoa omen da bateriak lauzpabost egun irautea.

iWatcha haririk gabe kargatuko litzatekeela aurreikusten dute, horrek esan nahi du ez litzatekeela entxufe batera konektatuta egon beharko, eta hasiera batean, behintzat, kargatzeko ez



Horrelako itxura izan dezake Appleren erloju adimendunak. | WWW.T3.COM

litzateke azalera baten gainean jarri beharko. Metro bateko distantzian kargatzeko aukera emango luke.

Beste txosten batzuetan diote gailua masan fabrikatzen haste-

Spotifyrekin mugikorretan ere musika doan

A.T. | ARRASATE

Hemendik aurrera Spotifyren erabiltzaileek euren musika zerrenda propioak entzun ahal izango dituzte mugikorretan, banan-banan euren abestiak aukeratzen joan barik, eta gainera, doan. Hala ere, publizitate iragarkiak entzun beharko dituzte harpidedun ez direnek. Horixe jakinarazi du Spotifyren sortzaile Daniel Ek-ek. Harpidedun direnek bakarrik aukeratu ahal izango dituzte abestiak eta horiek entzun ahal izango dituzte Internetera konexiorik ez duten gailuetan ere.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Salda bero-beroa

Takolo, Pirritx eta Porrotxen kanta batek zioen: *Salda bero-beroa...* Orain Pedro Piqueras Telecincoko aurkezlea azaldu da spot batean, iragarlearen salda benetan etxeko salda dela baieztatuz. Horretarako, inkongruentziak beteriko akzio inkoherenteak egiten ditu. Hasteko, salda egiten duten fabrikari langile guztiak ageri dira arauzko txanoarekin, baina aurkezlea, ez. Zertarako? Higiene arauak bestentzat! Gero, barazki guztiak era zentzugabe ordenaturik daukate lantegian, zertarako? Eta erabat surrealista den sekuentzia bat ikusten dugu: Piqueras, lasai bazkaltzen ari den famili baten sukaldean sartzen da eta familiakoek trankil jarraitzen dute salda dastatzeko, telebistako aurkezle bat euren etxean egotea normala bailitzan.

Gutako edonork, gutxienez, mahaitik jaiki eta bazkaltzera gonbidatuko luke Piqueras jauna. Edo agian Ertzaintzari deitu eta tipoa salatu. Edo zuzenean sardeska gizonaren begietan sartu. Nork daki! Baina egingo ez genukeen da, Pedrori begiratuz zera oihukatu: "Bai, etxeko salda da!". Iragarrikiko emakumeak egiten duen bezala. Jainko maitea!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ATSELEHENA, 23



Santamasak

Atzo, domeka, Arrasaten santamas jaiak ospatu zirenetan kalean jasotako giroa erakutsiko dizuegu. | 13:20

- 12:00 Hitzlandia
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:20 Jaiak: Santamasak
- 14:10 Onein
- 14:45 Berriak
- 15:15 Zorion Agurrak
- 15:20 Ur eta lur
- 15:55 Onein
- 16:28 Berriak
- 16:58 Trikitilari gazteen txapelketa
- 18:08 Zorion Agurrak
- 18:13 Klaketa
- 18:38 Ekogune
- 19:08 Berriak
- 19:33 Bideo klipak
- 19:43 Ekogune
- 20:18 Zorion Agurrak
- 20:25 Jaiak: Santamasak
- 21:15 Berriak
- 21:40 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan
- 22:10 Trikitilari gazteen txapelketa
- 23:20 Berriak
- 23:45 Jaiak: Santamasak

MARTITZENA, 24



Peter Pan

Bergaran bertako gaztetxoek egin zuten Peter Pan musikarekin disfrutatu ahal izango duzue. | 14:55

- 12:00 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan
- 12:30 Aizank!
- 13:10 Aniztasunean bizi
- 13:36 Ikusmira
- 13:58 Klaketa
- 14:23 Zorion Agurrak
- 14:30 Berriak
- 14:55 Peter Pan
- 17:10 Zorion Agurrak
- 17:17 Berriak
- 17:37 Zorion Agurrak
- 17:42 Klaketa
- 18:07 Trikitilari gazteen txapelketa
- 19:17 Zorion Agurrak
- 19:22 Berriak
- 19:47 Zorion Agurrak
- 19:52 Kantari
- 20:22 Zorion Agurrak
- 20:30 Berriak
- 20:55 Jaiak: Santamasak
- 21:45 Olentzero & Co. musikala
- 23:25 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan

EGUAZTENA, 25



Oñatiko Tobera

Oñatin joan zen urteko Gabonetan egin zen bailarako bigarren Tobera ikusi ahal izango duzue. | 22:20

- 12:00 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan
- 12:30 Onein
- 13:03 Kantari
- 13:33 Aniztasunean bizi
- 13:59 Bideo klipak
- 14:14 Ekogune
- 14:44 Zorion Agurrak
- 14:47 Olentzero & Co. musikala
- 16:27 Aizank!
- 17:07 Ikusmira
- 17:29 Ikusmira
- 17:48 Zorion Agurrak
- 17:53 Kantari
- 18:23 Peter Pan
- 20:38 Ur eta lur
- 21:13 Jaiak: Santamasak
- 22:03 Bideo klipak
- 22:20 Tobera herri-antzerkia

EGUENA, 26



'Ekogune'

Iraunkortasun eta ekologia gaiei buruzko saioa ikusgai, Julen Iriondok aurkeztutako Ekogune-n. | 14:09

- 12:00 Bideo klipak
- 12:43 Onein
- 13:13 Ikuskizuna: Azpeitia dantzan
- 13:43 Bideo klipak
- 14:09 Ekogune
- 14:39 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Onein
- 15:43 Bideo klipak
- 15:55 Ikusmira
- 16:14 Zorion Agurrak
- 16:24 Berriak
- 16:49 Aizank!
- 17:29 Ikusmira
- 17:42 Aniztasunean bizi
- 18:08 Ekogune
- 18:43 Bideo klipak
- 18:54 Zorion Agurrak
- 19:00 Berriak
- 19:20 Tobera herri-antzerkia
- 21:55 Kantari
- 22:23 Berriak
- 22:48 Jaiak: Santamasak
- 23:38 Ikusten
- 23:48 Berriak
- 00:16 Aniztasunean bizi

EGUBAKOITZA, 27



Tobera Arrasaten

Arrasaten 2011n egin zen Tobera ikusi ahal izango duzue. Debagoieneko lehenengo Tobera zen. | 21:15

- 12:00 Ikusten
- 12:15 Onein
- 12:48 Kantari
- 13:18 Ur eta lur
- 13:50 Jaiak: Santamasak
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Trikitilari gazteen txapelketa
- 16:20 Zorion Agurrak
- 16:30 Berriak
- 16:55 Ekogune
- 17:25 Bideo klipak
- 17:36 Aniztasunean bizi
- 18:02 Klaketa
- 18:27 Ikusmira
- 18:40 Zorion Agurrak
- 18:46 Ikusten
- 19:00 Berriak
- 19:30 Aizank!
- 20:10 Bideo klipak
- 20:20 Klaketa
- 20:45 Zorion Agurrak
- 20:50 Berriak
- 21:15 Tobera herri-antzerkia
- 23:31 Berriak
- 23:56 Ikusmira

ARRASATE IRRATIA

'Igo autobusera!' irratsaioa urtarilaren 7an bueltatuko da

Gabonetan oporrak hartuko ditu Arrasate Irratian astelehenetik egubakoitzera bitartean egiten den *Igo autobusera!* irratsaioak. Eta berriro itzuliko da urte berriarekin batera eta indarrak hartuta irratioko programaziora urtarilaren 7an 10:00etatik aurrera. Ez hutsik egin!

Musika entzungai eguneko 24 orduetan Arrasate Irratian

Gabonetako oporretan ez dugu zuzeneko saiorik eskainiko 107.7ko uhinetan. Hala ere, gure irrati martxan egongo da egun guztian zehar eta musika entzun ahal izango duzue 24 orduetan. Estilo askotariko musika jarriko dugu eta artista ugariaren kantuak entzun ahal izango dituzue.

Urtarileko lehenengo zozketarako hainbat musika CD dauzkagu

Urtarilaren 7an itzuliko gara *Igo autobusera!* irratsaioarekin eta aste horretako egubakoitzean, urtarilak 10, hainbat CD zozketatuko ditugu, tartean *Los Galerna* taldearena. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Hartu parte zozketan eta zorte on!

TELE-ALBISTEAK

Zapatuan Bergaran egingo den Tobera grabatuko du Goienak

Udal pilotalekuan egingo da eta bertan izango da Goienako kameralari eta teknikari talde bat

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA
Bergara epaituko duen hirugarren Tobera egingo da zapatuan, hilak 28, Bergarako Udal pilotalekuan. Guztira, Bergarako eta bailarako beste hainbat herritako 30 antzezle baino gehiagok hartuko dute parte Bagarak antolatutako antzerki satirikoan eta ikuskizuna oso-osorik eskainiko dizuegu Goiena telebistan. Horretarako, Goienako lantaldeko hainbat kameralari eta teknikari izango dira egunean bertan ikuskizuna hasieratik amaieraraino grabatzen. Gero, guztia telebistan eskaintzeko.

Bergara epaituko dute
Aurreko Toberetan moduan, ibarreko gainontzeko herriak akusazioko parte izango diren arren, aurtengoan, Bergarako auzotarrak izango dira akusazioaren protagonistak nagusiak.
Epaiketa horretan epaile lanak egiten ibiliko da hirugarren urtez Mikel Irizar, Don Prudentzio Piper Hautsaren paperean. Bergarako zenbait auzotako ordezkariak eta inguruko zenbait herritako lekukoak ere izango dira Bergarako herriari azalderia leporatuko diotenak eta akusa-



Bergaran egingo den Toberan parte hartuko duten herritar batzuk entsegu batean. | AMAIA TXINTXURRETA

Goiena telebistan abenduaren 31n estreinatuko dugu 23:15ean hasita

zioaren fiskala Jon Olivares osintxuarra izango da, Jon Martir fiskalaren paperean. Bergara defendatuko duen abokatua, berriz, Ane Zabala izango da Aupa Miren Etxebesteren paperean. Eta horiekin batera beste hainbat

herritar eta debagoiendarrek hartuko dute parte Toberan. Saioa oso-osorik Goiena telebistan ikusi ahal izango duzue datorren astelehenetik martitzenean, hau da, hilaren 31n, 25:15etatik aurrera.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Marisa Escobar
Abenduaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, amama Marisa! Esperodugu egun polita pasatzia eta zoriontsu izatia! Askok maitxe zaitzugu! Patxo handi bat etxekuen, Uxueren eta, bereziki, Kenaren partetik.



ARETXABALETA
Nora Justinne Sanchez Sanchez
Abenduaren 31n, 10 urte. Zorionak zuretako, zu izateagatik. Zure ama, aita, familia eta lagunak. Musu asko!



OÑATI
Irati Letona Zumalde
Abenduaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, Irati, zure hirugarren urtebetetzean. Ondo-ondo pasatu eta patxo handi bat zure etxeko danen partetik.




BERGARA
Unax Murgizu
Abenduaren 28an, 7 urte. Zorionak txapeldun! Ondo ospatu zure eguna eta jaso muxu potolo bat etxeko guztien partetik, bereziki Iraia eta Hodeien partetik.



OÑATI
Eneko Aranburu Onaindia
Abenduaren 27an, 8 urte. Zorionak, Eneko!



ARETXABALETA
Eider Altube Iturricastillo
Abenduaren 26an, 15 urte. Zorionak! Etxekoen partetik muxu handi bat! Jarraitu horrela, txapelduna!



ARAMAIO
Ihintza Arana Barrios
Abenduaren 24an, 2 urte. Zorionak, Ihintza! Muxu handi bat Jauritxikitik, aitite, amama, tio eta tiak eta zure hiru lehengusinen partetik: Amaiur, Goiatz eta Uxue. Elkarrekin ospatuko dugu!



ARAMAIO
Gailur Zubia
Abenduaren 24an, 6 urte. Zorionak eta besarkada bat Anerren eta Igotzen partetik.



BERGARA
Maitane Suinaga Ena
Abenduaren 24an, 9 urte. Zorionak Maitea! Alazneren, amatxoren eta aitaxoren partetik.



ARETXABALETA
Egoitz eta Izadi Zabala Cabero
Abenduaren 23an, urtebete. Olentzero egunian urtebete! Ze handi ein zarien! Ondo-ondo pasatu. Ppari pilua jaso biher dozue zuen egunian! Muxu asko amatxoren, aitaxoren eta Haizearen partetik.



BERGARA
Aitor Beistegi Frias
Abenduaren 23an, urtebete. Zorionak, Aitor! Muxu handi-handi bat hainbeste maitte zaitugun guztion partetik.



BERGARA
Aner Arriola Gallastegi
Abenduaren 22an, 8 urte. Zorionak, maitxia! Bikain pasatu zure eguna, txapeldun! Zorionak eta besarkada handi bat etxekoen partetik!



BERGARA
Igor Albeniz Arana
Abenduaren 19an, 10 urte. Zorionak, Igor. Patxo handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Marilu Rus
Abenduaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, amama Marilu, eta urte askotarako! Ondo ondo pasa eguna etxeko danen partetik!



ARETXABALETA OÑATI
Iargi Villar Urrutia
Abenduaren 14an, 6 urte. Zorionak, printsesa, Ze ondo pasa dugun zure eguna. Muxu pila bat Auritzen, Xubanen, amatxoren eta aitaxoren partetik.



ARETXABALETA
Eider Zuazubizar Rico
Abenduak 18an, 5 urte. Zorionak, Eider! Oso ondo pasatu eguna eta opari asko jaso! Etxeko danen partetik, muxu asko!



ARAMAIO
Arkaitz Ibabe Sillero
Abenduak 21ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Etxeko guztien partetik besarkada handi-handi bat, eta Ainhizeren partetik muxu potolo bat.



BERGARA
Mariñe Sotil Marchena
Abenduak 22an, 4 urte. Zorionak, printsesa! Gure neskatila handitzen doa. Etxekoen partetik, oso ondo pasatu eguna eta Aimarren partetik, marrubizko muxu pilo-pilo bat.



ARETXABALETA
Mikel Gonzalez
Abenduaren 21ean, 13 urte. Zorionak!! Egund polit bat izan dezazula. Familiako guztion partetik.



DEBAGOIENA
Markel Lana Ibabe
Abenduaren 21ean, 8 urte. Zorionak etxeko guztion partetik. Batez ere Nora eta Ander. Muxu handi bat.



DEBAGOIENA
Miren eta Lore
Mirenek abenduaren 21ean eta Lorek 31n, urtebetetzea. "Zorionak Lore eta Miren. Malen, Julen, Markel eta etxekoen partetik"



OÑATI
Beñat Arana eta Xabier Agirre
Zorionak, Beñat eta Xabier! Beñatek Abenduak 19an 4 urte eta Xabierrek Abenduaren 21ean 12 urte. Ondo ospatu zuen urtebetetze eguna eta patxo potolo bat bixori familia danan partetik. Bereziki Unaxen partez.



LEINTZ GATZAGA
Ander Larrañaga
22 urte! Ze gaztea zaren. Zorionak lankide guztion partetik. Gora preferiti!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

HILETA

**Iñaki
Osa Aldekoa**



Iruñean hil zen 2013ko abenduaren 20an, 67 urte zituela.

Haren aldeko meza astelehenean izango da, abenduak 23, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

*Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana*

Arantxa, Alberto, Pedro eta Kontxi.
Oñatin, 2013ko abenduaren 23an

HILETA

**Iñaki
Osa Aldekoa**



Iruñean hil zen 2013ko abenduaren 20an, 67 urte zituela.

Haren aldeko meza astelehenean izango da, abenduak 23, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

*Bizitzaren bidean zu izan zara gure gidari,
eta segiko duzu izaten gure bihotzen zaindari.*

Rosarito, Ekaitz eta Ibai.
Oñatin, 2013ko abenduaren 23an

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoiengan.

JAIOTAKOAK



Aner Horrillo Zallo

Arrasate 2,600 kilo. Abenduaren 14a.
Gurasoak: Amaia eta Ruben. Argazkian, Aner jaioberria gurasoekin.



Martin Bengoetxea Uribarren

Arrasate 3,440 kilo. Abenduaren 13a.
Gurasoak: Iñaki eta Maite. Argazkian, Martin jaioberria gurasoekin.



Noa Amutxategi Zubizarreta

Arrasate 4,400 kilo. Abenduaren 13a.
Gurasoak: Olatz eta Iñaki. Argazkian, Noa jaioberria sehaskan.



Anne Arrieta Zubielki

Arrasate 2,950 kilo. Abenduaren 16a.
Gurasoak: Ione eta Haritz. Argazkian, Anne amarekin.

Eroski hipermerkatuaren partetik,
zorionak
jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
10 euroko bonua* egin dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Erabiltzeko era	Arrakala	Senarra izan liteke
	Giza hiltzaile	EH-ko mendialdea	Gurdi mota
	Mesedez!		
	Emakume izena		
Buru-haustea	* Aramaioko auzo nagusia		
Brasilgo hiriburuko	Kanpo		
Arloak			Kontso-nantea
Ukatzeko			Sodioa
	Kristala, beira		
	Bokalik gabeko kafea		
Ez zuzen		...gabe, gelditu gabe	
Xaflatan antolatuta		Tona	
			Lehenengo bokala

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

A	U	T	A	V	L	A	X
I	A	I	R	E	K	O	K
A	N	I	B	E	Z	E	
G	K	L	A	V	A		
R	I	L	I	A	R	B	R
A	R	A	R	A			
N	A	R	R	E	A	R	E
S	Z	E					

T	S	M	V	I	A	U	L	E	I
D	R	S	O	S	E	M	I	S	
A	B	X	R	I	B	A			
R	M	R	F	A	R	N			
P	U	W	A	V		G	A	E	T
A	J	K	L	A		U	D	Z	
E	L	O	R	A	V	O			
U	S	R	I	E	A		W	D	S
T	O	H							

6	4	7	9	1	5	3	8	2	6
3	5	8	6	9	2	7	1	4	
9	2	6	1	7	4	8	5	3	
5	6	3	7	2	8	4	1	9	
7	8	4	2	5	1	9	3	6	
4	5	1	6	3	6	7			
8	1	9	3	7	6	2	4	8	
1	9	2	4	8	3	7	6	5	
9	2	4	8	3	7	6	5	1	
2	7	1	3	4	6	5	9	8	
5	8	6	9	2	1	4	7	3	



Ezetz igarri:
agiritarrak.

SUDOKUA

			9	2				
7	1	3		6				2
	2	4		3	7			5
	9	5						4
								6
6	3		2	8	4			
2			7			5		
3		8		9		7		
			5	3				

HIZKI SALDA

Topa itzazu Ipar Amerikako bost ibai

V	Y	U	C	O	N	H	T	O
W	D	S	R	I	E	A	C	U
C	O	L	O	R	A	D	O	E
Z	U	A	D	J	E	K	L	A
G	A	E	T	U	W	A	U	P
N	I	A	G	A	R	F	M	R
A	Y	S	E	X	R	I	B	A
M	I	S	S	O	U	R	I	D
U	L	E	I	A	W	S	A	T

EZETZ IGARRI!

Lau etxeko ilara batean,
agiritarrak ugartetarren
ondoan bizi dira, baina ez
labeguerietarren ondoan.

Labeguerietarrak ez badira
bizi martinezarren ondoan,
nor bizi da martinezarren
ondoan?

AI, ENE!

Berrerabilpenaren adibide garbia

Garbigailua botatzeko duzula? Inguruan norbaitek oilorik badu, pentsatu bi aldiz: garbigailuak bigarren bizitza izan dezake... www.facebookfails.es



AHOBERO

"Nire umeentzat arriskua dira; labean bizirik sartuko nituzke gay guztiak"

IVAN OKHLOBYSTIN | AKTORE ERRUSIARRA

Zeresana eman dute Errusian homosexualitatearekin lotuta hartutako neurriek. Horien artean dago adingabeei "harreman sexual ez tradizionalen" inguruko informazioa emateko debekua. Alboko astakeria bezalakoak, baina, baimenduta daude, antza denez. www.formulatv.com

EGURALDIA



Max. 15°

Min. 4°

Haizea indartu egingo da. Hego-mendebaldetik oso gogor joko du, batez ere arratsaldean. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-12-23

HAMARREKOA

Pirritx Elkartasuna gai nagusi duen 'Bizipoza' ikuskizunarekin alde batetik bestera dabil gure aste honetako elkarrizketatua; baita, egunotan, Olentzerori eta Mari Domingiri laguntzen ere | TXOMIN MADINA

"Barre errazekoa da Pirritx, eta negar errazagokoa"

1. Bihar gauean Olentzero dator... Urduri zaude?

Egunotan Olentzerori eta Mari Domingiri laguntzen jardun dugu, ikatza egiten ikasten, opariak biltzen... Eta urduri nago, bai! Kili-matxoak sentitzen ditut sabelean! Zapata berriak eskatu dizkiet.

2. Opariak jasotzeko, zintzoa izan behar da. Halaxe izan zara ala egin duzu bihurrikeriarik?

Amonak dio euskaldun, alai eta jator izateko; saiatzen naiz, eta halaxe erakutsi diegu Pupuri eta Loreri ere. Noizean behin bazterrak nahasten ditugunik ezin uka!

3. Pupu, Lore, Porrotx, Mari Motots, Porrotxin, zu... Baduzue leku nahikoa mahaiaren bueltan?

Baseria zaharra da, baina sukalde handia du, ez gaur egungo etxeetakoa bezala. Bertso finalean kantatu zuen Olentzerok, egungo tximiniak ere estuegiak zirela!

4. Zein izaten da sukaldaria?

Amona Josefina da denetan artista, eta Porrotx laguntzaile. Aurten urdaiazpiko-kroketak eta patata-tortilla jango ditugu; eta Udako artzainak oparitutako gazta eta intxaurrak postrerako.

5. Askorentzat, oparia zuek ikustera joatea izaten da...

Oso esker oneko jarduna dugu. Amonak dio guretzat urte osoan direla Gabonak, eta bat nator: txiki eta handiekin partekatzen ditugun muxuek, besarkadek, sekretuek, ametsek... ez dute preziorik.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Euskara debekatzen dutenei, euskara"

"Euskarari behin eta berriz debekua eta zangotrabak ezartzen dizkieten horiei euskara oparitutako nieke, munduari euskaratik eta euskaraz begiratzea, eta euskaraz maitatzea zein polita den ikus dezaten".

6. Zuen azken diskoan Amets Arzallus txapeldunak hartzen du parte. Zelako ohorea, ezta?

Ametsek, Maialen Lujanbiok, Igor Elorzak, Beñat Gaztelumendik, Andoni Egañak, Hodei Barrosok, Miren Amurizak, Peru Madalenak... Hau pagotxa! Horrelako bertsolariz eta sortzailez inguratuta bizitzea, hori bai bizipoza!

7. Ia beti Porrotxekin ikusten zaitugu. Haserretzen zarete inoiz?

Askotan haserretzen gara! Biak ere kaskagor samarrak gara, eta purrustadaka aritzen gara; baina berehala adiskidetzen gara, koptilun egoteak ez du-eta merezi.

8. Beti dantzan, kantuan, jolasean... Nondik ateratzen duzu horrenbeste indarra?

Gurea jolasa da, afizioa ofizio bihurtuta. Umeen irriek eta besarkadek ematen digute indarra. Baserritarrek, arrantzaleek, mediku eta erizainek, okinek, irakasleek, autobus gidariek... Denok egiten dugu lan handia, eta denon jarduna da garrantzitsua.

9. Pirritxek egiten du negarrik?

Barre errazekoa da Pirritx, eta negar errazagokoa. Malkoa gerutu dut beti! Amonak dio hori ona dela azalarentzat. Porrotxek eta Marimok animatzen naute.

10. Zer eskatzen diozu 2014ari?

Elkartasuna, hizki larritan, gure Euskal Herri maite-maitea Euskal Irri bihurtzeko bidean.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Ana eta Joakin

Gabonetan sartuak gara eta, ahal dugun giro alaie-nean ospatu nahi izaten ditugu. Argiak eta doinuak non nahi; goizetik haur eta gaztetxo taldeak eta, ilunkeran, nola ez, gizon eta emakumez osatutako taldeak gabon kantuak abesten, gabon-eskean.

Euskal kantutegian, gabon abesti ugari dauzkagu, batzuk Euskal Herri osoan ezagunak diranak eta beste batzuk soilik tokian tokikoak diranak.

Gaur, Arrasateko gabon abesti hau erakarri gura izan dut; herriko nagusien artean ezaguna zen galdetuta, ezekoa jaso nuen, eta beraz, litekeena da herritarren artean guztiz ahaztuta egotea.

Ana eta Joakin izenburuko abesti hau Resurrección María de Azkue jaso zuen Mutrikuko Agustinen Lekaimetxean Soledad Altube arrasatearraren eskutik.

Biribilketa da kantuaeren doinua, sei bider zortziko konpas alaiean eta Mi maiorrean.

Ana ta Joakin,
Peru ta Martin
goazen zortziko dantzara,
gabo n gabeen
zoro eztanda
zororik andiena da.
La ra la ra la ra...
Portala zaharra
loraz betirik
gabon gabaren erdian
marabilea
jaiotzen dago
Jaungoikoaren semea.
La ra la ra la ra...

Eguberri zoriontsua eta urte berri oparua guztiontzat!

R.P.S. Nº 149/10 LLG.

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

Eguzkitako betaurreko POLARIZATUAK egurrezko

LOOK-a

49€

Oparitu ezazu moda gabonetan...

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan